



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko irailaren 7a

70. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldiarako (4. or.).
- Foru Lege proiektua, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzkoa. Prozedura arruntaz izapidetzea (11. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aldatzen duena. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aldatzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42. artikulua aldatzekoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean farmaziako prestazioak osatzeari buruzkoa. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (20. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzkoa, 2012an aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (23. or.).

- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42 eta 45. artikulua aldatzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (24. or.).
- Foru Lege proposamena, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako ondorioekin, erosahaltenaren galera dela-eta. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (26. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, kulturaren arloko politika orokorrari buruzkoa, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak egina (29. or.).
- Jabeldura, Foru Komunitatea pairatzen ari den murrizketa-politikari eta politika horren ondorioei buruzkoa, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak egina (30. or.).
- Jabeldura, gardentasunari eta herritarren ordezkariak eta gizarteak berak informazioa jasotzeko duten eskubidea errespetatzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (30. or.).
- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak neskak eta mutilak bereizten dituzten eskola eta institutuekin dituen itunei buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (31. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da ikastetxeetarako zenbait material didaktiko sar dezan ETaren terrorismoak Nafarroan izandako ondorenen kontakizuna egiteko proiektuaren barruan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (32. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da INASako lanpostuak mantentzeko formulak bila ditzan. Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztu du (33. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da bertan behera utz ditzan ezarri izan dituen irizpideak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoan eta haren menpeko erakunde autonomotan sortzen diren lanpostu hutsak betetzeari dagokionez. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (34. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiazten da zerbitzu jarraitua ematen segi dezan Oronoz-Mugairiko osasun etxean. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (35. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da Nafarroako kultur ondareari buruzko urte antzeko plan bat aurkez dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (36. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da neurriak har ditzan beren bezeroei partaidetza lehenetsiak eskaintzen dizkieten entitate finantzarioei dagokienez. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (37. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da ez dezan aplika 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua, sektore publikoko langileen abenduko aparteko ordainsaria kentzen duena. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (38. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzea eta, horrenbestez, pribatizatzea. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (39. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiazten da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (41. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiazten da beharrezkoak diren bitartekoak ezar ditzan, aurreikusitako egunean ordain daitezen Prepara programako langabetuei bideratutako prestazioak. Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztu du (42. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsitako mozioan adierazitakoa, osasun sistema publikoan haurdunaldia borondatez eteteko aukera eskaintzeari buruz. Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu dute (43. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabat arbuia egiten ditu, Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jasotako “doitze-neurri” deituak. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (44. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernuak eta haren Industria, Energia eta Turismo Ministerioa premiazten dira ez dezaten luza Garoñako zentral nuklearraren bizitza. Maiorga Ramírez Erro jaunak eta Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu dute (45. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da Nafarroa osoan errespetatzen euskaldunen hizkuntza eskubideak. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (46. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiazten da zuzen dezan kultur arloari dagokion BEZa igotzeari buruz hartutako erabakia. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (48. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure autogobernua eta osasunaren arloan dituen eskumenak defenda ditzan eta estaldura unibertsaleko osasun laguntza ziurta dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (49. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da errezeta elektronikoaren sisteman programa bat ezar dezan, ekidite aldera erabiltzaileek dirua aurreratzea. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (50. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio bat abiaraz dezan gizarte eragileekin Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean, Enplegu Publikoaren Eskaintza bat adosteko. Maiorga Ramírez Erro jaunak eta Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu dute (51. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan bisitaldi turistiko-kulturalen programa bat, interes kulturekotzat deklaraturako eraikin guztiak kontuan hartuko dituen. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (52. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira erabat errespetatuz Parlamentu honek onetsitako legeak eta zehatz-mehatz bete ditzaten osasun arloko Nafarroako foru legeak. Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (53. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2012ko abuztuaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, ondoko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: "Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen Foru Lege proiektua, 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako, prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko urriaren 1ean eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako

ZIOEN AZALPENA

Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen du toki ogasunek behar adinako baliabideak izan dituztela legeak korporazioei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko eta, funtsean, beren tributuez eta Estatukoetan eta autonomia erkidegoetakoetan parte hartuz hornituko dira.

Nafarroak eskumena du toki ogasunen arloan, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua araberak.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, toki ogasunei buruzko VIII. tituluaren xedatzen duenez, 259. artikuluan zehazki, Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta haien esku utzitako helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaizkie; baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege baten bidez arautuko dira, Nafarroaren toki araubide berekiko gaia den aldetik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.2 artikuluan aurreikusia. Horren bidez zehaztu besterik ez da egiten askitasun finantzarioaren printzipioa, Konstituzioaren 142. artikuluan biltzen dena, bertan jartzen baitu udalek behar adina baliabide izan beharko dutela legeak beren gain uzten dituen eginkizunak betetzeko, eta horretarako beren tributuez eta Estatukoetan nahiz autonomia erkidegoetakoetan parte hartuz hornituko direla.

Aurrekoa betetzeko xedez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. eta 261. artikuluetan ezartzen da ezen toki ogasunen baliabide-iturriak izanen direla, besteak beste, beren tributuoak eta Foru Komunitatekoetan eta Estatukoetan duten parte-hartzea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, toki ogasunen baliabideei buruzko I. tituluko 123. artikuluan, zehazkiago arautzen du zenbatekoa den Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako parte-hartzea, eta ezartzen du udal agintaldi bakoitzeko bigarren urteko lehen seihilekoan Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari arau-proiektu bat igorriko diola, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren. Arau-proiektu horretan zehaztuko da zenbatekoa izanen den toki ogasunek Nafarroako zergatan duten parte hartzeko funtsa hurrengo lau aurrekontu-ekitaldietan, eta finkatuko da funts hori banatzeko formula, zuzentasunaren eta proportzionaltasunaren irizpideetan oinarriturik.

Bestetik, martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legeak, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duenak, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planaren indarraldia luzatu zuen plan berria onetsi arte, eta aukera eman zuen gastu konpromisoak hartu eta baimentzeko plan haren funtsen kargura; horregatik, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa arautzen duen foru lege honetan ez da jaso kapital transferentzien kontzeptua.

Mendebaldeko ekonomietan ez eze Foru Komunitatean eta bertako toki entitateetan ere eragina duen egungo krisi egoera dela eta, komeni da parte hartzeko funtsaren erregulazioaren iraupena murriztea, bi urtekoa izan dadin, betiere pentsatuz egungo egoera hobetu eginen dela, eta horrek hurrengo ekitaldietan zuzkidura oparagoa izateko bidea emanen duela.

Horrekin batera, berehala arau bat egingo dugunez Nafarroako toki entitateen mapa antolatuko duena modu moderno eta eraginkorrean, komeni da funtsaren erregulazioaren iraupena motzagoa izatea, arau horrek ezarriko duen toki entitateen maparen erregulazio berriak berari egokitutako finantzabideak izan ditzan.

Hortaz, foru lege honek, salbuespen gisa eta aipatutako arrazoiak direla eta, bi ekitalditarako arautzen du parte hartzeko funtsaren zuzkidura, 2013 eta 2014rako alegia.

Foru lege honek ezartzen du, lehenengo eta behin, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoa-

ren tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbateko orokorra, eta, ondoren, zenbateko hori handitzeko sistema, transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak deritzen kontzeptuetan; gehikuntza hori honakoa izanen da: kontsumorako prezioen indizea Nafarroako Foru Komunitatean igo den ehunekoaren parekoa, ekainetik ekainera neurtua.

Transferentzia arruntak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, formula jakin baten bidez banatuko zaizkie udal eta kontzejuei. Banatzeko formulak zuzentasunaren eta proportzionaltasunaren irizpideak kontuan hartu beharko ditu, aipatu printzipio nagusiak zehazten dituzten parametroetan oinarriturik.

Ildo horretan, foru lege honek proposatzen du transferentzia arruntan funtsaren banaketa bat, zeinak, ekitate horizontalaren printzipioa aplikatuz, funts hori partitzen baitu zuzenean toki entitate bakoitzaren gastu beharren arabera eta alderantzizko proportzioan haren ahalmen fiskalarekin, eta horrela bermatzen du gehiago jasoko duela gastu behar handiagoa eta/edo bere baliabideak eskuratzeko ahalmen txikiagoa duenak.

Banaketa-sistema hiru mailatan egituratzen da. Lehenik, Iruñeko udalerriri esleitzen zaio kopuru bat. Bigarrenik, funtsaren gainerakoa beste udalerrien artean banatzen da; eta azkenik, kontzejuen parte-hartzea finkatzen da, bakoitzari dagokion udalerriri esleitutako kopuruaren gainean, kontzejua dituen biztanleen kopuruaren arabera.

Iruñeko hiriak duen berezitasuna biztanleen kopuruak ematen dio; izan ere, kopuru horrek eragiten du trataera berezia, finantzaketari dagokionez, beste toki entitateen aldean.

Bigarren mailako banaketa sistemarako, udalerriri bakoitzarentzat bi indize lortu behar dira, bata, gastu beharrena, eta bestea, ahalmen fiskalarena, eta horiek zehazteko bideak taxutu dira estatistikako prozeduretan oinarritu eta Nafarroako toki entitateen sektoreko kontabilitateari buruz dagoen informazioari aplikatuta.

Sei aldagai linealki konbinatuz lortzen da gastu beharren indizea, estatistikoki frogatu baita horiek direla eraginik handiena dutenak tokiko gastu arruntean, haietako bakoitzaren gastua esplikatze-ko ahalmenaren bidez ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera guztira eta barreatze-indizea (kontzentrazio indizearen alderantzizkoa).

Ahalmen fiskalaren ponderazioa 0,3491 da, hori baita, finantzatu beharreko gastu arruntentzuztirakoaren gainean, indize horretan ordezkatzen diren toki baliabide ekonomikoen baturaren portzentajea. Baliabide horiek honakoak dira: hiri-lurreko eta landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioak, jarduera ekonomikoen gaineko zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eta herrilurren aprobetxamenduagatik diru-sarrerak.

Kontzejuen parte-hartzea, berriz, banaketako hirugarren mailak ezartzen du, udalerriri esleitutako zuzkiduran oinarrituta. Entitate horien hasierako partaidetza kalkulatzeko, kasuan kasuko udalerriren partaidetza bider % 30 egiten da, eta hori berriz ere bider kontzejuko biztanleen proportzioa, udalerriren biztanleria osoarekin alderaturik ateratakoa. Parametro hori da kontzejuei dagokien gastuaren batez bestekoa, gaur egungo eskumenen banaketa kontuan izanik.

Banaketa formula berri honek ez du erabateko hausturarik eragin nahi egun arte indarra zuen sistemarekin, eta horregatik berme sistema bat ezarri da.

Funtsaren banaketaren azken kapituluak "Beste laguntza batzuk" izenekoa da, honako kontzeptu hauek biltzen dituena: abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legearen arabera, "Iruñearen Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik Iruñeko Udalerri dagokion zuzkidura; beste zuzkidura bat, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan, interes komunak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkarteentzako laguntza ekonomikoei buruz, ezarritakoa betetzeko. Eta, azkenik, beren eginkizun instituzionalen aritzeagatik euren korporazio-ko kideei ordainsariak, bilkura-sariak edo egindako gastuen ondoriozko bestelako gastuak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalentzako konpentsazioa" izeneko atalari dagokiona foru lege honetan zehazten den bezala banatuko dena.

I. KAPITULUA

Zuzkidura orokorra eta eguneratzea

1. artikulua. Iraupena

Foru lege honek transferentzia arruntentzuz parte hartzeko funtsak 2013an eta 2014an izanen duen zuzkidura eta banaketa arautzen ditu.

2. artikulua. Funtsaren zuzkidura.

2013ko ekitaldi ekonomikorako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten parte hartzeko funtsaren zuzkidura 196.580.332 eurokoa izanen da, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da..

3. artikulua. Funtsaren banaketa.

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa, 2013ko ekitaldirako, honela banatuko da hasiera batean:

1. Transferentzia arruntak: 167.939.611 euro.

2. Bestelako laguntzak:

a) Iruñeko Udalerri, "Hiriburutza Agiria" delakoagatik: 22.942.425 euro.

b) Nafarroako udalari, korporazioko kideei ordainketak egiteko: 5.315.239 euro.

c) Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioari: 383.057 euro.

4. artikulua. Aurrekontuan esleitutako diru kopurua.

1. Nafarroako 2013 eta 2014ko ekitaldiei dagozkien aurrekontu orokorretako bakoitzean, agertuko da zenbatekoa den toki entitateen Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsa, zeina banatuko baita aurreko artikuluan aipatzen diren epigrafeetan.

2. Transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak xede izanik, funtsak 2014rako esleitutako diru kopurua zehazteko, 2013. urterako ezarritakoari gehituko zaio kontsumorako prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izandako igoera, ekainetik ekainera neurtua.

II. KAPITULUA

Transferentzia arruntentzuz esleipena

5. artikulua. Iruñeko udalerrientzako esleipena.

Iruñeko udalerriri 2013rako aurreko urtean jaso zuen zenbatekoa esleituko zaio, betiere 2012. urtearen aldean 2013rako gehitutako portzentajea gehituta, eta hurrengo ekitaldian, 2014koan alegia, aurreko urtean jasotako zenbatekoa esleituko zaio, gehi 4. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako irizpidearen arabera legokiokeena.

6. artikulua. Gainerako udalerrien artean banatu beharreko zenbatekoa.

Gainerako udalerriek 2013. eta 2014. urteetako ekitaldietan banatuko duten kopurua 3. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako kopurua izanen da, Iruñeko udalerriri dagokion esleipena kendu eta gero.

7. artikulua. Gainerako udalerrientzako banaketarako formula.

Gainerako udalerrientzako banaketarako formula prozedura honi jarraikiz lortuko da:

a) Lehen fase batean, gastu premien indizea lortuko da gastu premiaren sei aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez, haietako bakoitzak gastu horren azalpenak emateko duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera guztira eta barreatze-indizea (kontzentrazio indizearen alderantzizkoa).

b) Bigarren fase batean, udalerrien ahalmen fiskal eta ondarekoaren aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez lortuko da ahalmen fiskalaren indizea, bost sarrera moten arabera likidatutako eskubideen guztizkoan haietako bakoitzak duen pisuaren arabera ponderaturik. Honako aldagai hauek erabiliko dira: lurreko ondasunen gaineko oinarri fiskalak, jarduera ekonomikoen gaineko zergarena, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarena eta herrilurren katastro-balioa.

c) Azkenik, gastu beharren indizeari kenduta 0,3491 faktoreak ponderatutako ahalmen fiskala, formula hau aterako da:

$$FTC = 0,9231 \times PPOB + 0,1278 \times PMA65 + 0,3355 \times PURB + 0,1341 \times PPINM + 0,0083 \times PINVDISP + 0,0074 \times PSUP - 0,2490 \times PCTU - 0,0222 \times PCTR - 0,0760 \times PIAE - 0,0995 \times PIVTM - 0,0895 \times PVCC.$$

Azalpena:

FTC da udalerrri bakoitzaren banaketa indizea.

PPOB da udalerrri bakoitzaren biztanleria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren biztanleriarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PURB da udalerrri bakoitzaren hiri azalera garbia adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren hiri azalera osoarekin alderaturik, Iruña kenduta. Hiri azalera garbia da planoaren araberako azaleraren (azalera grafikoa) eta lurzati batuketaren modura hartutako azaleraren (azalera alfanumerikoa) arteko aldea.

PMA65 da udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen portzentajea, Nafarroa osoan 65 urte edo gehiago dituzten biztanle guztien baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PPINM da udalerrri bakoitzaren biztanleria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren biztanleriarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PINVDISP da populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa adierazten duen portzentajea, honela kalkulatu: udalerrri bateko bizigune bakoitzeko populazioak populazio osoarekin alderaturik osatzen dituen portzentajeen koadratuen batura, Nafarroa (Iruña kenduta) osoko populazio-

aren kontzentrazioaren indizeen alderantzizkoen baturarekin alderaturik.

PSUP da udalerrri bakoitzaren azalera osoak adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren azalerarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PCTU da udalerrri bakoitzaren hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarri doitu adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoari dagozkion tributu horren likidazio-oinarri doitu baturarekin alderaturik, Iruña kenduta. Oinarriak merkatu balioen arabera doitzen dira, koefiziente zuzentzaile baten bitartez, zeinak merkatu balioekin alderaturik agertzen duten uruntasunaren arabera handitzen baititu balioak. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak finkatuko du koefiziente zuzentzaile hori etxebizitzentzat.

PCTR da udalerrri bakoitzaren landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoari dagozkion tributu horren likidazio-oinarri guztien baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PIAE da udalerrri bakoitzaren jarduera ekonomikoen gaineko zergaren oinarri-kuota adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoari dagokion jarduera ekonomikoen gaineko zergaren baturarekin alderaturik, Iruña kenduta; betiere, oinarri-kuotatzat hartzen da nazio, lurralde nahiz udal esparruko kuoten batura, udal errekargua kenduta.

PIVTM da udalerrri bakoitzean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak adierazten dituen portzentajea, Nafarroa osoari dagokion zerga honen eskubide likidatuen guztirakoarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PVCC da udalerrri bakoitzean herrilurren katastroko balioa adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoko udalerrietako balioen guztirakoarekin alderaturik, Iruña kenduta. Beren mugapean kontzejuak dituzten udalerrrien kasuan, kontzejuetan kokaturik ez dauden herrilurren balioa baizik ez da hartzen kontuan.

8. artikulua. Gainerako udalerrientzako hasierako esleipena.

1. Aurreko artikuluan aipatzen den formula udalerrri bakoitzeko aldagaien balioei aplikatuz aterako da udal mailako banaketa indizea .

2. Udalerrri batentzat ateratzen den banaketa-indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta berriz kalkulatu dira gainerako udalentzako banaketa-indizeak, haien guztien batuketaren emaitza 1 izan dadin.

3. Banaketa-indizea banatu beharreko kopuruaren gainean aplikatuko da, hori 5. artikulua arabera kalkulatzeko baita, udalerrri bakoitzari hasieran dagokion esleipena lortzeko.

9. artikulua. Berme klausularen aplikazioa eta behin betiko esleipenaren kalkulua udal mailan, gainerako udalerrientzat.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzeari dagokionez, udalerrriek transferentzia arruntetan jaso beharreko zenbatekoa ez da izango, inola ere, aurreko urteko funtsaren banaketan jasotakoa baino txikiagoa.

2. Baldin eta funtseko partaidetzatik, transferentzia arruntetan kontzeptuan, udalerrri bati hasieran esleitutako kopurua aurreko idatz-zatietan ezarritako bermea adinakoa ez bada, behar diren kopuruak kenduko zaizkie, hasieran esleituak zituztenetatik, bermatutakotik goitiko kopuruak lortzen dituzten udalerriei, bakoitzari dagokion bermearekin alderaturik lortutako igoeraren arabera proportzioan.

10. artikulua. Kontzejuentzako hasierako esleipena.

Kontzejuak dituzten udalerrietan, udalerrori esleitutako partaidetzatik parte bat kenduko zaie, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, kontzejuen artean banatzeko. Entitate horien hasierako partaidetza kalkulatzeko, kasuan kasuko udalerrriaren partaidetza bider % 30 egingen da, eta hori berriz ere bider kontzejuko biztanleen proportzioa, udalerrriaren biztanleria osoarekin alderaturik ateratakoa. Gelditzen den kopurua izanen da udalerrriaren hasierako esleipena.

11. artikulua. Bermearen aplikazioa eta behin betiko esleipenaren kalkulua beren mugapean kontzejuak dituzten udalerritan.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzeari dagokionez, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsetik kontzejuak eta beren udalerrriek transferentzia arruntetan kontzeptuan jaso beharreko zenbatekoa ez da izango, inola ere, aurreko ekitaldian funtsa banatzean transferentzia arruntetan jasotakoa baino txikiagoa.

2. Berme hori kontzejuentzat eta dauden udalerrientzat gauzatzeko, baldin eta banaketa formularen aplikazioarekin hartara iristen ez badira, behar diren kopuruak kenduko zaizkie udalerrri berekoak izanik bermetik goitiko kopuruak lortzen dituzten entitateei, 8. artikulua arabera haiei esleitutako kopuruetatik, bakoitzak dagokion bermetik izandako igoeraren proportzioan.

12. artikulua. Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako udalerrien arteko banaketa kalkulatzeko behar diren aldagaien balioak foru lege honen eranskinean aipatzen diren iturrietatik lortuko dira. Aldagaien erreferentzia-urtea, banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean eskura dauden Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrietako biztanleriaren azkeneko datu estatistiko ofizialena izanen da. Erreferentzia-urte horretako daturik ez bada, hurbileneko urtekoak hartuko dira.

2. Aurreko idatz-zati horretan xedatutakoa ukatu gabe, trakzio mekanikoko ibilgailuen zergako datuak azken ekitaldiko kontuen espedientetik aterako dira, zeina Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen arabera aurkeztua beharko baitu Toki Administrazioako Departamentuan, edo, bestela, ekitaldi horretako bereko aurrekontuaren likidazio espedientetik, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 227.2 artikuluan eta hura garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori hala ez bada, eskura dagoen azkeneko daturik berriena eguneratuko da, urteko % 10eko igoera aplikatuz. Aurreko hiru ekitaldietako daturik ez bada, Nafarroako *per capita* daturik handienaren arabera kalkulatu da, biztanleria aldagaia oinarritzat hartuz.

3. Kontzejuentzako banaketa kalkulatzeko, erreferentzia-urtetzat hartuko da, banaketa zein urtetan egiten den, urte horretako maiatzaren 1ean datu ofizialak eskura dauden urtea; datuak, betiere, hala Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrien biztanleria-estatistikakoak nola Nafarroako Estatistika Institutuaren kontzejuen biztanleria-estatistikakoak, bietan urte berari buruzkoak izanen dira.

4. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa ukatu gabe, kontzejuen edo udalerrien mugapeetan aldaketak gertatzen badira eta, aldagaien balioek haien eragina jasaten dutelako, banaketan kontuan hartu behar badira, aldagaien zenbatekoa berriro kalkulatu da, banaketa gertatzen den uneko egoera administratiboari egokitzeko, betiere egoera administratibo horri buruzko datu ofizialik ez badago.

13. artikulua. Ordainketa.

1. Toki entitateen Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtseko diru kopuruaren ordainketa, transferentzia arruntetan esleitutakoari dagokiona, lau alditan egingen da ekitaldi bakoitzean, eta hiruhileko natural bakoitzaren lehen hamabostaldian ordainduko dira.

2. Lehenbiziko bi aldietako bakoitzean ordainduko da aurreko ekitaldian behin betikoz jasotako kopuruaren ehuneko 25.

3. Hirugarren ordainketa egin aurretik, toki entitate bakoitzarentzako urteko behin betiko esleipena kalkulatu da, eta une horretan aurreko biak osatuko dituen kopuru bat ordainduko da, esleipenaren ehuneko 75era iritsi bitarte, eta laugarren hiru hilekorako utziko da falta den zatiaren ordainketa.

4. Udalen eta haien mugapeko kontzejuen artean sinatutako hitzarmenik badago, eta hartan hori aipatzen bada, hitzarmenean ezarritako moduan ordainduko zaie entitate horiei, deusetan ukatu gabe hasiera batean entitate bakoitzari dagokion ekarpenaren zenbatekoa banaketa formula aplikatuz kalkulatu.

III. KAPITULUA Bestelako laguntzen esleipena

14. artikulua. Bestelako laguntzen esleipena

Funtseko diru kopuruetan, "Bestelako laguntzak" sailaren barruan daudenetatik "Hiriburutzak Agiria" delakoagatik Iruñeko Udalariko dagozkionak, araubide berezi hori ematen duen abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legean xedatutakoaren arabera banatuko dira, eta foru lege honen 13. artikuluan transferentzi arruntetarako aurreikusitako modu berean ordainduko.

15. artikulua. Nafarroako udalantzako konpentsazioa, hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindutakoaren aldera.

Kargu publiko hautatuen aritzeagatik beren korporazioko kideei ordainsariak, bilkura-sariak, kalte-ordainak edo eginkizun publikoetan parte hartzeko eskubide konstituzionalean aritzearen ondorioz sortutako gastuengatik heldu diren bestelako pagamenduak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalantzako konpentsazioa, honela egingen da:

a) Baldin eta udalek alkate eta zinegotzietan ordaintzen badiete, legeria orokorrari jarraikiz, beren karguan denbora osoan edo partzialan aritzeagatik, edo ematen badizkiete bilkura-sariak, kalte-ordainak edo bestelako pagamenduak, kargu publikoan aritzearen ondorio zuzenak direnak, udal horiek ekarpen bat jasoko dute toki ogasuneko Nafarroako zergetan parte hartzeko duten funtsetik, ordain horien kostua kitatzeko.

b) Kontzeptu horregatik, udalek urtean jasotzen ahal duten gehienezko ekarpena, 2013. urterako, udala osatzen duten hautetsien kopuruaren arabera, hauteskundeetako legeria orokorrari jarraikiz, honako hau izanen da:

b.1) 3 zinegotzi dituzten udalak: 4.114,15 euro

b.2) 5 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 10.595,95 euro

b.3) 7 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 15.582,34 euro

b.4) 9 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 18.699,21 euro

b.5) 11 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 29.918,32 euro

b.6) 13 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 51.733,70 euro

b.7) 17 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 79.159,04 euro

b.8) 21 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 113.440,58 euro

b.9) 27 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 190.105,92 euro

c) Ekarpen horiek beren xedari lotuak egonen dira, bakar-bakarrik erabiliko baitira alkate nahiz zinegotzietan aipatu diren kontzeptuengatik ordaintzeko, eta urtero eguneratuko dira, 4. artikuluko 2. idatz-zatian ezartzen den moduan.

d) Ordainketa behin egingen da transferentzia arruntan funts orokorraren bigarren aldiarekin, urte bakoitzaren urtarrilean, jaso nahi duten udalek alde aurretik eskatuta, eta eskabideari ekarpen honek aurreko ekitaldiko zenbatekoa eta xedearren ziru tagiria gehitu beharko diote, halakorik egin bazuten. Baldin eta hautetsiei ekitaldian ordaindutako kopuruak guztira iristen ez badira artikuluko honetan udal bakoitzarentzat ezarritako gehienezko kopurura, kontzeptu honengatik egiten den hurrengo ordainketan kenduko da kopuruaren arteko alde hori.

e) Baldin eta soberakinik gertatzen bada xede hauetarako kontsignazioan, guztira likidatutako kopuruari dagokionez, soberakinak transferentzia arruntan funts orokorrari gehituko zaizkio, zeinari erantsiko baitzaizkio foru lege honetako 12. artikuluan aipatzen den urteko behin betiko esleipena kalkulatu aurretik.

f) Baldin eta defizita gertatzen bada korporazioko kideen gastua konpentsatzeko esleipenean likidazioa egiteko behar den diru kopuruari dagokionez, transferentzia arruntan funts orokorretik hartuko da, foru lege honen 12. artikuluan aurreikusitako urteko esleipen behin betikoa kalkulatu aurretik, edo bestela Toki Administrazioako Departamentuaren Aurrekontuko 4. kapituluko beste edozein kontu-sailetik.

16. artikulua. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntza.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzat funtsaren barrenean esleituriko kopurua ordainduko da transferentzia arruntentzat foru lege honen 13. artikuluan aipatzen den modu berean.

Xedapen gehigarri bakarra. Korporazioko kideentzako ordainketetarako esleipena egokitzea.

Korporazioko kideentzako ordainketetarako esleipena, banaketari, ordaintzeko prozedurari eta ordainketen justifikazioari dagokienez, aplikatzekoak diren arauetan jasotako irizpideekin bat etorriko da, kontuan hartuta betiere Nafarroako Gobernuaren ordezkariak eta Nafarroako toki entitateetako ordezkariak gai horretan lortzen dituzten akordioak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

ERANSKINA

Banaketa formulako aldagaiak
eta aplikazio iturriak

1. Udalerrri bakoitzaren biztanleria. Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

2. Kontzeju bakoitzaren biztanleria. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

3. Udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleak. Estatistikako Institutu Nazionalak ematen duen datua, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

4. Hiri azalera garbia. Planoan ageri den azalera (azalera grafikoa) ken lurzatiek batuta duten azalera (azalera alfazenbakizkoa). Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du datu hori, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren berbera izaten da.

5. Etorrinak. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

6. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak emandako azalera osoa

7. Populazioaren kontzentrazio indizearen aldeantzikoa, Nafarroako Estatistika Institutuak emandako datuekin urte bakoitzerako kalkulatuak.

8. Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzio doituaren likidazio-oinarria. Hori da udalerrri bakoitzeko hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzio likidazio-oinarria, merkatuko balioei doitzeko koefizientearekin biderkatua. Bi horiek Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen ditu, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik datuak harturik, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako.

9. Udalerrri bakoitzeko landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik datuak harturik, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako.

10. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren oinarri kuota. Nazio kuoten, lurralde kuoten, lokal finkorik gabekoen udal kuoten eta lokal finkoa dutenen udal kuoten batura da, azken horretan udal errekarua kenduta. Datu hauek Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Jarduera Ekonomikoen Erregistroak emandakoak izanen dira.

11. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak. Udalek Toki Administrazio Departamentuari igorritako kontuen likidazioetatik aterea. Igortzen ez baditu, aplikatuko da zenbatespen bat, kalkulatu dena foru lege honetako 11. artikuluko 2. puntuan ezarritako irizpidearekin.

12. Herrilurren katastroko balioa. Hori da, Nafarroako udalerrri bakoitzarentzat, herri-ondasunen eta haietatik datozenen katastro-balioa, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako. Beren mugapean kontzejuak dituzten udalerrien kasuan, ez da sartzeko kontzejuen titulartasunarekin dauden herri-ondasunak. Balio hori Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak hartzen ditu Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik.

Foru Lege proiektua, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzkoa.

PROZEDURA ARRUNTAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2012ko ekainaren 28ko Osoko Bilkurak bazter utzi zuen testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektua irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea. Foru Lege proiektua 2012ko ekainaren 8ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Legebiltzarreko 158.4 artikularekin bat, hona ERABAKIA:

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza Batzordearen esku uztea.

3. Xedatzea epe bat irekitzen dela **2012ko urriaren 1ean eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta eskatzen du presaz eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena,
Nafarroako administrazio publikoen
zerbitzuko langileen arloan presako
zenbait neurri hartzeari buruzko
ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea
aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

2012rako defizit-helburua betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako konpromisoari jarraituz, Parlamentu honek neurri-sorta bat onetsi du (Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko Foru Legea), atzerakada bat dakartenak langile publikoentzat oso sentiberak diren arloetan; esate baterako, lansarrietan eta lan-baldintzetan, bai eta lehenago negoziazio-gai izandako eskubideak kentzea.

2012rako defizit-helburua betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako konpromisoak berekin ekarri behar du diru-sarrerara publikoak sendotzeko nahiz lanpostuak mantentzeko neurriak hartzea.

Nafarroako Gobernuak abian jarritako zenbait neurri lortzen ari direna da bilatzen den ondorioaren aurkakoa.

Langileen arloko neurri jakin batzuen bidez gastua murriztea, zerbitzu publikoek okerrera egitea ekartzeaz gain –gizarte demokratiko, bidezko eta berdintasunezko baten zutabe nagusiak dira zerbitzu publikoak–, eragin negatiboa izaten ari da gure erkidegoko langabezia-tasan, eta, ondorioz, kalte egiten ari zaie familiei eta Nafarroako ekonomiaren aktibazioari.

Ezin dugu ahortzi zerbitzu publiko hobeagoak dituzten gure inguruko herrialdeak direla krisiaren oldarrari hobekien eusten ari zaizkionak.

Hortaz, beharrezkoa da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea zuzentzea, bai funtzionarioen bai estatutupeko eta lan-kontratuko langileen lanaldiari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren mendeko enpresa publikoak barne, ekonomia sustertzeko neurriak ezartzen joateko, hazkunderen, enpleguaren eta ongizate estatuaren alde lan eginez.

Hortaz, honako foru lege proposamen hau proposatzen diogu Legebiltzar honi:

1. artikulua. 4.1. artikulua aldatzen da.

“4 artikulua.

1. Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen urte osoko lanaldia 1.592 ordukoa izanen da.”

2 artikulua. 4.2. artikulua aldatzen da.

“4 artikulua.

2. Aurreko artikuluan finkatutako urteko lanorduen kopuruaren gainean behar den konpentsazioa aplikatu ondoren, txandaka aritzen diren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari nahiz haren menpeko erakunde autonomoetako langileek lanpostuan benetan egon beharreko lanaldi hau izanen dute:

A) Goizeko, arratsaldeko eta gaueko txanda: 1.457 ordu urtean.

C) Gauetako txanda finkoa: 1.535 ordu urtean.

D) Goiz eta arratsaldeetako txanda, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.554 ordu urtean.

E) Lanaldi zatitua, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.569 ordu urtean.”

3. artikulua. 4. artikuluko 3., 4. eta 5. idatz-zatiak kentzen dira.

4 artikulua. Bigarren xedapen gehigarria aldatzen da.

“Bigarren xedapen gehigarria. Foru lege hau nola aplikatu Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetako goi-karguei eta lan-kontratuko langileei.

Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetako goi-karguei eta lan-kontratuko langileei honako hauek aplikatuko zaizkie: 1. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatiak, jardunean segitzeari buruzkoak; 4. artikulua, lanaldiari buruzkoa, arau orokor gisa aplikatzekoa denari dagokionez; 5. artikulua, zerbitzuko dietei buruzkoa; 7. artikulua, 1. eta 2. idatz-zatiak; eta artikulua horren gainerako idatz-zatietako agindu orokorrak, sindikatuen ordu kredituari buruzkoak.”

Azken xedapen indargabetzailea.

Foru lege honen bitartez indarrik gabe gelditzen dira ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legetik heldu diren antolamendu arloko lege-xedapen guztiak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileen lanaldiari eta lanaldi-banaketari buruzkoak.

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta eskatzen du presaz eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko Foru Legea. Besteak beste, funtzionario publikoen lanaldiaren handitzea arautzen zuen; izan ere, Espainiako Gobernuak, neurri hori ezarri zuenean, oinarritzko legediaren izaera eman zion.

Aldi berean, Nafarroako enpresa publikoetako langileen lanaldiaren handitzea ere aurreikusi zen. Parlamentu-talde honen ustez, funtzionario eta langile publikoei ezarritako lanaldi-handitze bera ezartzen zuen langile horientzat legearen behin betiko testuak. Alegia, bai administrazio publikoetako funtzionario eta langile publikoak, bai enpresa publikoetako langileak, astean batez beste hogeita hamazazpi orduko lanaldia izatera igaro ziren. Horrek 1.628 ordu egiten du urtean.

Bigarren xedapen gehigarria argia da enpresa publikoetako langileen lanaldia dagokionez (parlamentu-talde honen ustez, funtzionario eta langile publikoen lanaldiarekin parekatzen du horien lanaldia), baina Enpresa Korporazio Publikoak eta, antza denez, Nafarroako Gobernuak berak, bigarren xedapen gehigarri horren interpretazio bidegabea egiten dute, halako moduan non, haien ustez, enpresa publikoetako langileen lanaldia ez baita handitzen 1.628 ordukoa izateraino (funtzionario eta langile publikoena bezala), baizik eta 1.706 ordukoa izateraino. Interpretazio hori lerraturikoa, interesatua eta zinez irudimentsua da, eta parlamentu-talde honen ustez ez dauka oinarri juridikorik, eta, legearen letraren nahiz espirituaren kontrako izateaz gain, legegilearen borondatearen aurkakoa ere bada.

Nafarroako Gobernuaren jarrera gaitzesgarri honen ondorioz, baliteke enpresa publikoetako langileek lan-arloko jurisdikziora jotzea 1.628 orduko lanaldia aplikatu dakien eskatzera, eta oso litekeena da epaileek babesa ematea haien eskakizunei, baina horrek ezinbestean ekarriko luke

denbora eta diru aldetiko gastuan ahalegin bat egitea. Eta handitu eginen litzateke lan-arloko epaitegiek jadanik pairatzen duten lan-zama handia.

Horregatik guztiagatik, eta berreste aldera bat bera dela Nafarroako enpresa publikoetako langileen lanaldia eta administrazio publikoetako funtzionario eta langile publikoena, foru lege proposamen hau aurkezten dugu.

Artikulu bakarra. Aldatu eginen da bigarren xedapen gehigarria, “Lanaldiari dagokionez...” esaten duenetik aitzina, non ondokoa ezarriko baitu: “Lanaldiari dagokionez, lanaldia hogeita hamazazpi ordu eta erdikoa izanen da astean batez beste, hau da, 1.628 ordu urtean. Alegia, Nafarroako

administrazio publikoetako funtzionario eta langileen lanaldiaren iraupen berekoa izanen da. Lanaldiaren iraupen hori izanen da aplikatuko dena, harik eta, etorkizunean, lanaldiaren iraupena eta gainerako lan baldintzak arautzen diren arte, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren hitzarmen kolektibo berariazko eta bereki batean, edota enpresa publikoen hitzarmen kolektibo berariazko eta berekietan.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean, eta 13/2012 Foru Legea indarrean sartu zen egunetik aplikatuko dira bere ondorioak.

Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42. artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

1. Agintzea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru Lege proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Lurraldearen Antolamenduari eta
Hirigintzari buruzko abenduaren
20ko 35/2002 Foru Legearen
42. artikulua aldatzeko
Foru Lege proposamena**

ZIOEN AZALPENA

Lurraldearen Antolamenduari buruzko azaroaren 11ko 12/1986 Foru Legean ezarri ziren hasiera batez udalez gaindiko proiektu eta plan sektorialeak, zeinak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikuluan eta hurrengoetan arautzen baitira gaur egun, lurraldearen antolamendu tresnen artean.

Bai foru legedian, bai beste autonomia erkidego batzuetakoan, non plan edo proiektu horiek izen ezberdinak hartzen baitituzte –esaterako, eskualdekoak, udalez gaindikoak, udalez gaindiko interesekoak, interes berezikoak, lurralde jarduketakoak eta abar–, tresna-mota horien hasierako xedea zen arautzea udal-interes hutsetik harantzagoiko intereseko azpiegitura, zuzkidura eta instalazioen ezarpena (errepideak, autobioak, obra hidraulikoak, energia-garraioak obrak...).

Geroago, tresna horien xedea zabaldu egin da, eta bizitegi-jarduketak ere hartzeraino iritsi da, lehenago udal hirigintzako planeamenduaren zehaztapen tipikoak zirenak ukituta. Halatan, lurraldearen antolamenduko tresna gisa definitzen bada ere –alegia, “espresuki formulatutako irizpideen, arauen eta planen multzoa, lurraldearen gaineko jarduketak eta populazio-kokapenak orientatu eta arautzen dituen, zeinaren xedea baita oreka egoki bat lortzea lurraldearen, ingurumenaren, populazioaren, jardueren, zerbitzuen eta azpiegituren artean”–, azkenean nahasi egiten da haren xedea eta planeamenduarena, bai haren determinazio egituratzailerei dagokienez –horien bidez zehazten dira “udalerrri bakoitzaren lur eremu osoa okupatu, erabili eta zaintzeko eredia, hiriarren nahiz lurraldearen funtsezko elementuak, eta beraien etorkizuneko garapena”–, bai antolamendu xehekatuko determinazioei dagokienez –“aurrekoak zehazten dituztenak, behar den neurrian, exekuzio materialeko ekintza zehatzak egin ahal izateko”–.

Kasu egiazki salbuespenekoetara eta justifikatuetara mugatu behar da –aurreikusitako jarduketak hala exijitzen duen kasuetara, zeinetan antolamendua ezin baita egin hirigintzako planeamendu arruntaren bidez– Nafarroako Gobernuak duen ahalmena, ez soilik hirigintza arloko toki-eskumenak baldintzatzeko, ezpada horien gauzatzea

zuzenean bereganatzekoa ere, udal planeamendu indarduna aldatuz, halako moduan non toki entitateak ez baitira eskumenik gabe geldituko. Halere, lurraldearen antolamendu arloko tresna horien kontzeptuazioa lausoegia gertatzen da gaur egun, eta arriskua dago duten berezko xedeaz harantzago erabilliak izateko, hirigintzako planeamenduren ordezko balira bezala; hau da, foru gobernua horien erabilera diskrezionala egin lezake, udalen berezko eginkizunak ordeztuko hala komeni zaionean, ez lurralde antolamenduaren arloko arrazoiengatik, baizik eta interes politiko, administratibo edo ekonomikoko arrazoiengatik. Udalez gaindiko eraginaren deklarazioa ekintza formal huts bihurtu da; sarritan, aipagai dituen jarduketan edo azpiegituren lurralde-eragina udal baten mugartera mugatzen da (besterik da demografia, bizitegi, merkataritza, ekonomia, kultura eta beste arlo batzuetako eragina). Egungo araubidearen bidez ahalbidetu da tresna horien erabilera estentsibo bat egitea; horrek, tresnak desnaturalizatzeaz gain, toki autonomiaren esparrua argiro inbaditzeko aukera ematen du (toki autonomiaren edukirik tipikoenetarikoa bat da, hain zuzen ere, udal lurraldearen hirigintza antolamendua).

Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialen araudi indardunaren ondorio horiek zuzentze aldeara, horien definizio askoz ere zorrotzagoa eta beren izaerari doituagoa jasotzen da, bai eta betekizun zehatzagoak ere udalez gaindiko eraginaren deklarazioari dagokionez, segurtasun juridiko handiagoa ematen dutenak.

Artikulu bakarra. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikulua aldatu da, zeina honela geldituko baita:

“42. artikulua. Xedea.

1. Udalez gaindiko plan sektorialen xedea da etxebizitzaren, ekonomia-jardueren edo zuzkiduren arloko jarduketak antolatzea, baldin eta horien eragina, lurraldearen antolamenduari dagokionez, jarduketa egiten den udal-mugarteaz harantzagoak badira edo jarduketa udal-mugarte bat baino gehiagotan egiten bada.

2. Udalez gaindiko proiektu sektorialen xedea da arautzea garraio sistemako azpiegiturak edo instalazioak, hidraulikoak, ingurumenaren kudeaketakoak, energia alorrekoak, telekomunikaziokoak eta antzeko gainerako guztiak, baldin eta beren eragina, lurraldearen antolamenduari dagokionez, beren tamaina, garrantzia edo ezaugarri bereziak direla medio, hartzen duten udalerriaz gaindikoa bada, edo udal-mugarte bat baino gehiagotan egiten bada.

3. Udalez gaindiko plan eta proiektu sektoriale-tan biltzen diren determinazioak, zeinak doituko baitira aplikatzekoak diren maila handiagoko lurraldearen antolamenduko tresnen determinazioetara, kasuko toki entitateen planeamendurako lotesleak izanen dira. Horretaz gainera, ukitutako toki entitateek beren hirigintza-planeamendua egokitu beharko dute, hari dagozkion determinazioetara, berrikusi edo aldatzen denean, betiere berrikuspen edo aldaketa horren xedea zuzenean ukitzen badute aipatu determinazioek.

4. Nafarroako Gobernuari dagokio plan edo proiektu sektorial bat udalez gaindikoa dela deklaratzeko, foru lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako. Horretarako, ondokoak arrazoitu eta justifikatu beharko ditu espedientean:

a) Aurreikusitako jarduketek edo azpiegiturak udalez gaindiko esparruan eragiten diotela lurraldearen antolamenduari eta lurraldea egituratzeko eginkizuna dutela;

b) Deklarazio hori beharrezkoa dela ondokoak ziurtatzeko: plan edo proiektuaren xede diren jarduketak, azpiegiturak, zuzkidurak eta instalazioak behar bezala txertatzen direla lurraldean; kasuko sare eta zerbitzuekiko lotunea, daudenen funtzionaltasuna kaltetu gabe; kokalekuaren inguruneari egokitzen zaizkiola, eta lurralde nahiz hirigintzako planeamendu indarduneko determinazioekiko artikulazioa;

c) Jarduketa edo azpiegiturak udal-mugarte bat baino gehiagotan egin behar direla, edo, bestela, egin nahi den antolamenduak gizarte-eragin nabarmena duela kokatzen den udal-mugartetik kanpo; eta

d) Proposatutako antolamendu-helburuak ezin direla lortu udal-eskumeneko hirigintzako planeamenduaren bitartez”

Xedapen iragankorra.

Foru lege honetan xedatutakoa aplikatzekoa izanen zaie, indarrean sartzen den egunetik aitzina, prestatzen ari diren eta oraindik behin betikoz onetsi ez diren udalez gaindiko plan eta proiektu sektoriale. Udalez gaindiko eraginaren deklarazioa onetsita baldin badago, udalez gaindiko eraginaren deklarazio berri baten mende jarriko da espediente, foru lege honetan xedatutakoarekin bat, sei hilabeteko epean, eta iraungita geldituko da bestela, eta ezarritako prozedurarekin bat jarraituko da izapidetzen hortik aitzina.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

1. Agintzea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzen

duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru Lege proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Lurraldearen Antolamenduari eta
Hirigintzari buruzko 35/2002
Foru Legea aldatzen duen
Foru Lege proposamena**

ZIOEN AZALPENA

Legegintzaldi honetan zehar ikusten ari gara herritarrek beren ordezkari politikoei seriotasuna eta zorrotasuna eskatzen dizkietela, kontu publikoei dagokienez. Aldi berean, gero eta populazio-sektore gehiagok exijitzen dute parte-hartze aktiboago bat erabakiak hartzean.

Parlamentu hau Nafarroako Gobernuak kontrolatzeko organo bat denez gero, guri dagokigu zorrotzari handienarekin begiratzea plan orok ahal den adostasun handiena izan dezan, bai pla-

nak ukitzen duen udalaren eremuan, bai eremu politikoan.

Horrenbestez, gure ustez, udalez gaindiko edozein proiektu eta planek Parlamentuaren gehien-goaren onospena izan behar du, Gobernuaren zeregin politikoa areago kontrolatzeko.

Artikulu bakarra. 42. artikuluari idatz-zati bat gehitzen zaio; bosgarrena, hain zuzen ere: Xedea.

“5. Udalez gaindiko proiektu sektorial edo plan hori irakurketa bakarrean onetsi beharko du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, indarrean sartzeko”.

Azken xedapen indargabetzailea.

Foru lege honen bidez indarrak gabe uzten dira udalez gaindiko proiektu sektorialak eta planak onesteari buruzko antolamenduzko lege-xedapen guztiak.

Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Ezkerreko-Ezkerra parlamentu-taldeak Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irak-

asten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru Lege proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 1.1 artikulua ezartzen duenez, Espainiako hezkuntza-sistemak, Konstituzioaren balioei jarraiki antolatuta eta Konstituzioan aitortutako eskubideekiko eta askatasunekiko errespetuan oinarrituta, jarraibide izanen du “eskubide-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren garapena, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren sustapena”. Printzipio horrekin bat, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeari buruzko 84. artikuluko 3. idatz-zatian xedatzen du ez dela diskriminaziorik izanen honako arrazoi hauengatik: jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, edota beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial.”

Auzitegi Gorenak oraintsu azaldu duenez –uztailaren 23ko 5492/2012 eta uztailaren 24ko 5498/2012 epaiak–, “sexuen arabera bereizitako hezkuntza-sistemaren zilegitasuna onartzen bada ere, administrazio eskudunarekin funts publikoen bidezko finantzaketa itundu ahal izatetik bazter gelditzen dira ikastetxe horiek. Ondorio hori heldu da 2/2006 Lege Organikoko 116.1 artikulutik, ondokoa xedatzen baitu: “Lege honetan doakotzat ezarritako irakaskuntzak eskaintzen dituzten eta 108. eta 109. artikuluetan xedatutakoaren esparruan eskolatzeko-premiei erantzuten dieten ikastetxe pribatuak itun-erregimenari lotu ahal izanen zaizkio, legez ezarritako baldintzetan”. Artikulu horretako 2. idatz-zatiak, berriz, hau xe xedatzen du: “Aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betezen dituzten ikastetxeen artean, egoera ekonomiko txarrean bizi diren ikasleak dituztenek eta hezkuntza-sistemarako interes pedagogikoa duten esperientziak egiten dituztenek izango dute itun-erregimenari lotzeko lehentasuna. Nolanahi ere, lehentasuna izango dute, arestian adierazitako irizpideak betez gero, kooperatiba-erregimenean eratuta dauden eta erregimen horretan diharduten ikastetxeek”. Ituna egitea ahalbidetzen duten irizpide horien artean ez da inolaz ere aipatzen ikastetxeak baterako hezkuntzaren sistemari atxikitzea. Baina argi dago ezen, alde aurretik, 2/2006 Legeko 84. artikulua, zeinak espresuki aipatzen baitu “ikasleen onarpena”, itunak egin ahal izatetik bazter utzi dituela sexuen arabera bereizten dituzten

ikasleak, 3. idatz-zatian debekatu egiten baitu sexua dela eta diskriminatzea ikasleen onarpena, eta diskriminazio hori aurretzeko da, ituna egin ahal izateko gainontzeko baldintzak baino lehena-gokoa; eta argi dago, orobat, “sexuen arabera bereizitako hezkuntzaren aldeko hautua egiten duten ikastetxe horiek itunak egin ezin izateak ez duela gurasoen inolako eskubide konstituzionalik ere ukitzen, zeren eta gurasoek ikastetxea libreki hautatzeko eskubidea mantentzen baitute, ez eta ideario edo izaera berekiko ikastetxeak sortzeko titularrena ere, eta ez da zenbait ikastetxe, legeak ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, itunik egin ezin izateagatik urratzen Konstituzioko 27. artikuluko 9. idatz-zatia ere “

Halaber, lege organiko horretako hogeita bosgarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, “eskubideen eta aukeren berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-eraginkorra sustatzeko, hezkuntza-etapa guztietan baterako hezkuntzaren printzipioa garatzen duten zentroek lehentasuna izango dute Lege honetan jasotako aurreikuspenen aplikazioan, Espainiak izenpetutako nazioarteko hitzarmenetan xedatutakoa aparte utzi gabe”.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 24. artikulua –“Berdintasun-printzipioa hezkuntza-politikan barneratzea”– hezkuntza-administrazioei agintzen die ondoko jarduketak egitea, besteak beste, euren eskumenen esparruan: “proiektuak eta programak garatzea, xede dutenak hezkuntza-erkidegokopertsonen artean suspertzea baterako hezkuntzari eta emakumeen etagizonen arteko berdintasun eragingarriari buruzko printzipioen ezagutza eta zabalkundea”.

Xedapen horiek hezkuntzari buruzko foru-araubidean jasotze aldera eta itunpeko ikastetxe pribatuetan baterako hezkuntzaren printzipioa bultzatzen dela eta ikasleak onartzeko prozeduran sexuarengatik diskriminaziorik ez dagoela ziurtatze aldera, bidezkoa da berariazko xedapen bat jasotzea, hezkuntza-itunak egin ahal izatea horren arabera baldintzatuko duena.

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri bat gehitzen zaio uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legeari, zeinak arautzen baitu Batxilergoko ikaskuntzak, maila ertaineko prestakuntza-zikloak eta gizarte-bermeko programak ematen dituzten gizarte-ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa. Hona:

“1. Ezin izanen dute egin foru lege honetako 1. artikuluan araututako itunik sexu bakar bateko ikasleak soilik onartzen dituzten ikastetxeek, edo sexuaren arabera bereizitako taldeetan irakasten

dutenek, edo modu batera edo bestera baterako hezkuntzaren printzipioa aplikatzen ez dutenek .

2. Halaber, ezin izanen dute itunik egin Foru Komunitateko administrazioarekin sexu bakar bateko ikasleak soilik onartzen dituzten haur, lehen edo derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeek, edo sexuaren arabera bereizitako taldeetan irakasten dutenek, edo modu batera edo

bestera baterako hezkuntzaren printzipioa aplikatzen ez dutenek.

3. Erabat deusezak izanen dira xedapen honetan ezarritakoaren aurka ematen diren egintza guztiak”

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunen hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean farmaziako prestazioak osatzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldek Nafarroako Foru Komunitatean farmaziako prestazioak osatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta eskatzen du presaz eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Foru Komunitatean farmaziako prestazioak osatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzkoa

Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatorioa maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoak, arautzen du, prestazio publiko hori ospitaleratu gabe emateko, erabiltzaileek neurri batean ordainduta. Prestazio hori ekainaren 26ko 29/2006 Legean, medikamentuen eta osasun-produktuen bermeei eta arazoizko erabilerari buruzkoan, xedatutako berariazko araudiaren mende dago.

Lege horiek aldatu egin da, hain zuzen, apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak, OSNaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurrienak, xedatutakoaren bidez. Horrenbestez, medikamentuaren zikloa esaten zaionaren zenbait esparrutako programa- eta kudeaketa-arauak ezarri dira; bereziki, prestazio publikoa kudeatzeko eta finantzatzeko ardura duten herri-administrazio sanitarioen jardura-eremuan. Hortaz, barne hartzen da medikamentu horiek banatzen dituzten farmazia guztiekiko bitartekotza, bai eta finantzaketa publikoaren funtsezko ekarpena ere, sistema-ren funtzionamendua bermatzeko.

Lege honek testuinguru horretan eragiten du, lehen helburu izanik Estatuko oinarritzko araudi berriaren aplikagarritasuna bideratzea. Horretarako, beharrezko neurriak egituratu behar dira, sendagaiak agintzeko funtzioa osa dadin sistemak sortuko duen informazioarekin, erabiltzaileen ekarpenerako mekanismoari dagokionez, eta, aldi

berean farmazia-prestaziorako baldintza onenak bermatuko dituen kudeaketa-elementu berriak transmititzeko gai izan dadin

Bestalde, foru lege honen helburu da, halaber, oinarrizko antolamenduaren garapenean sakontzea, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-politikaren berariazko gidalerroak finkatzeko. Helburu horretarako, betiere legedia errespetatuz, eta Estatu oinarrizko araudi berriak gastu publikoa arrazionalizatzeari buruz xedatutako helburu eta printzipioak kontuan hartuta, herritarrekin dugun konpromisoa hedatzeari ekinen diogu, eta Estatuak ematen duen oinarrizko prestazio-estatusa osatuz, Nafarroan lortu ditugun babes-mailei eusteko.

Lege honek bideratuko du Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatorioa emateko oinarrizko finantza-baldintzei osagarri bat eranstea Foru Komunitatearen eremuan, baldintza berdinetan eta prestazio hori jasotzeko eskubide duten pertsona guztientzat, Osasun arloko eskubideei eta betebeharreri buruzko 17/2010 Foru Legeko 11. artikuluan jasotzen den moduan..

Estatuko esparrua garatzeko ahalmen hori proiektatzen da arau horrek finkatu duen eremuan, Estatuaren zenbait eskumenetan zehaztu gabe babestuta. Baina, Konstituzio Auzitegiaren doktrinari erreparatuta, maiatzaren 25eko 98/2004 epaitik aurrera argi eta garbi ageri da farmazia-prestazioa ezartzeari eta publikoki finantzatzeari dagokionez, zehazki Konstituzioaren 149.1.16 artikuluan jasotako osasunaren oinarriari buruzko Estatuaren eskumena; besteak beste, gizarte-segurantza sistemako osasun-laguntzaren kontribuziozko izaera galtzeak behin betiko lagundu du Osasun Sistema Nazionalako prestazio publikoen sistemaren oinarriaz jabetzeko kontzeptua birdefinitzen eta finkatzen, eta, gaur egun, zerga orokorren kargura finantzatzen da oso-osorik.

Foru lege honek bilatzen duena da gure Foru Komunitateari dagokion eskumen-eremuaren oinarrizko antolamendua hedatzea edo hobetzea, kasuan kasuko politika publikoak garatzeko eta gauzatzeko ahalmena baitu.

Ekimen honek ez du inolako ondorio negatiborik eraginen OSNari dagokion araudiaren aplikazioaren egunerokoan, eta, jakina, ez du inolaz ere eragin behar OSN guztiaren prestazioak jasotzeko ekitateari eta benetako berdintasunari buruzko berme osoari. Gainera, kontuan izan behar da ez dela sendagaien edo osasun-produktuen berariazko erreserba; izan ere, erreserba horiek mugatzailak dira, ekainaren 26ko 29/2006 Legeak, medikamentuen eta osasun-produktuen bermeei eta

arrazoizko erabilerari buruzkoak, xedatutako araubide juridikoari jarraikiz.

1. artikulua. Xedea.

Dekretu honek xede du farmazia-prestazioaren oinarrizko finantza-baldintzak osatzea Nafarroako Foru Komunitatean.

2. artikulua. Eskubidearen titularrak

Arau honetan deskribatzen diren farmazia-prestazioen osaketarako eskubidea izanen dute:

1. Osasun Sistema Nazionalaren bidez funts publikoekin finantzatzutako osasun-laguntzaren eremuan sartutako pertsonak, haren asegurdun edo onuradun direlako.

2. Prestazio berberak jasoko dituzte Nafarroako Foru Komunitatean pertsonak osasunaren arloan dituzten eskubideei eta betebeharreri buruzko 17/2010 Foru Legeko 11. artikuluan jasotakoaren arabera osasun-laguntza publikorako eskubidearen titularrak diren eta foru lege honetako 2.1 artikuluan sartzen ez diren pertsonak.

3. artikulua. Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatorioa aplikatzeko arauak.

1. Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio publiko anbulatorioa osatzen duten medikamentuak eta osasun-produktuak Nafarroako Foru Komunitatean banatzeko, estatuko oinarrizko araudiari, foru lege honi eta foru lege hau garatzeko edo aplikatzeko ematen diren gainerako arauak jarraituko zaie

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun-zerbitzuen eremuko mediku-aginduei laguntzeko informazio-sistemek zenbait informazio- eta interakzio-azpisistema dituzte OSNaren farmazia-prestakuntzan barne hartutako medikamentu-izendegiaren ondoan. Horrenbestez, arauak ezarritako eremu subjektiboari buruzko xedapenei osatutako informazioa erantsiko dute, eta, bereziki, foru lege hau, farmazia-prestazioetan erabiltzaileek egin beharreko ekarpenen sistemari buruzkoa.

3. Medikamentuak eta osasun-produktuak agintzeko, Osasun Sistema Nazionalan baliagarriak diren errezetak eta erizaintza-aginduak egiteko eredu ofizialak bete behar dira.

4. artikulua. Osasun Sistema Nazionalaren Nafarroako Foru Komunitateko farmazia-prestazio anbulatorioaren finantza-estaldura publikoaren hedapenerako arauak.

1. Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatorioa Osasun Sistema Nazionale-

an oro har aitortutako eskubidearen ildotik eskuratzeko dutenei eta dekretu honek araututako estalduraren hedapenari dagozkion kolektiboetakoak ez direnei 29/2006 Legeak erabiltzaileen ekarpenei buruz xedatutakoa aplikatuko zaie (ekainaren 26ko 29/2006 Legea, medikamentuen eta osasun-produktuen bermeei eta arrazoizko erabilerei buruzkoa). Bermatuta geratuko da, betiere, pertsona guztien benetako berdintasuna, prestazioak eskuratzeari dagokionez.

2. Foru lege honetako 2.2 artikuluan aipatzen diren pertsona guztiek izanen dute 5. artikuluan araututako estaldurarako eskubidea.

3. Medikamentuak eta osasun-produktuak Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo dauden farmazietan banatuz gero, finantza-estaldurarako eskubidea duten pertsonak eskatu ahal izango dute farmazia horietan gehiegi ordaindutakoa itzultzea, Nafarroako Foru Komunitateko farmazietan ordainduko zutena erreferentziatzen hartuta.

5. artikulua. Finantza-estaldura zabaltzearen norainokoa.

1. Aurreko artikuluan xedatutako estaldurak honako baldintza ekonomiko hauek ditu, erabiltzaileak Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatoriorako egin beharreko ekarpenei dagokienez:

a) Orokorrean, publikoarentzako salmenta-prezioaren % 40ko ekarpena egin beharko dute erabiltzaileek. Baldintza horietatik kanpo geratzen dira ekarpen murriztuaren sistemaren mendeko medikamentuak.

b) Salbuespen gisa, ez dute ekarpenik egin beharko honako kategoria hauetako erabiltzaile eta onuradunek:

I Pentsiodunek, kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten pertsonak barne hartuta.

II. Sindrome toxikoen kalteak pairatu dituztenek eta ahalmen urriko pertsonak, berariazko araudietan xedatutako kasuetan.

III. Gizarteratze errenta jasotzen duten pertsonak.

IV. Langabezia-saria jasotzeko eskubidea galdu duten langabetuek, egoera horretan dauden bitartean.

V. Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen ondoriozko tratamenduak dituzten pertsonak.

VI. Ekarpentetik salbuetsita daude ondotik zerrendatzen diren pertsonak ere:

- 65 urtetik goitikoak.
- Alargunak.
- 18 urtetik beheitiko umezurtzak.
- % 33ko minusbalioetasuna edo handiagoa duten pertsonak.

2. Ekarpene hori eginen da medikamentua eskuratzeko unean. Medikamentua Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko farmazia batean eskuratzeko bada, gehiegi ordaindutakoa 4.3 artikuluan xedatutakora egokituko da.

Xedapen gehigarria.

Osasun Departamentuak beharrezko neurriak hartuko ditu, foru lege honetako arauak helarazteko eta integratzeko Nafarroako Foru Komunitatean legez ezarritako farmaziek Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatorioari dagozkion medikamentuak banatzeko lankidetzaren baldintzak jartzearen indarrean dagoen itunaren arabera.

Azken xedapenetan lehena.

Osasuneko kontseilariari ahalmena ematen zaio, errezeten eta erizaintza-aginduen eredu ofiziala egokitzeari ekin diezaion, hura eguneratzeko, araudiari egokitzeko, edota Nafarroako Foru Komunitateko farmazia-prestaziorako beharrezko eskakizun operatiboetara egokitzeko, eta, horrez gain, 5. artikuluan aurreikusitako identifikazio-agiria egiteko xedapen zehatzak emateko, eta 8.2 artikuluan aurreikusitako gastu-itzulerarako prozedura ezartzeko.

Azken xedapenetako bigarrena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzkoa, 2012an aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, 2012an aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera, Foru Lege proposamen bat aurkeztu du, Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzkoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzko Foru Lege proposamena, 2012an aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzkoa, 2012ko ekitaldian aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera

ZIOEN AZALPENA

Orain dela gutxi jakin dugu Nafarroako Gobernuaren jarrera dela Rajoy jaunaren Madrileko Gobernuak hartutako erabakiari men egitea eta gure erkidegoan ere betetzea langile publiko guzti-ei urte amaierako aparteko ordainsaria ez ordaintzeko erabakia. Estatuko Gobernuarekiko adostasun politiko eta ideologikoak eraginda hartu du erabaki hau Nafarroako Gobernuak; izan ere, bi gobernuak bat datoz krisi ekonomiko larriari, enplegu-galerari, dirusarrera publikoen jaitsierari eta administrazio publikoek aurrekontu arloko

lehentasunak kudeatzeari dagokienez zer neurri hartu behar diren eta nola jardun behar den.

Gure ustez, Nafarroako Gobernuaren erabaki hau, zeinaren ondorioz Nafarroako administrazio publikoetako langileek ez baitute jasoko 2012rako aurreikusitako ordainsarien zati bat –zehazki, abenduko aparteko ordainsaria–, bidegabea da erabakiak zuzenean ukitutakoei begira, eta bidegabea izateaz gain zeharo okerra dela iruditzen zaigu, Madrilgo Gobernu eta Nafarroako Gobernu hartzen eta abian jartzen ari diren beste asko bezala.

Murrizketa politikek –zerbitzu publikoetan, Administrazio langileen plantilletan, gizarte gaitan edo inbertsioari, suspertze ekonomikoari nahiz enplegu-sorrerari buruzko jarduketa publikoaren arloko konpromisoetan– krisia areagotu eta luzatu besterik ez dute egiten, eta gero eta herritar gehiago bidaltzen ditu langabeziara, pobrezia eta bazterkeriara.

Madrilgo eta Nafarroako gobernuak lehenetsi egiten dituzte defizita murriztearekin, banketxeei laguntzearekin eta sektore publikoa mehetzearekin lotutako eta konprometitutako politika ekonomikoak, batez ere ongizatearen estatuari eta zerbitzu unibertsalei dagokienez. Ondorioz, bazter uzten dira administrazio publiko eta herritarren ordezkari garen aldetik uneotan ditugun betebeharrak, noiz eta gizartearen gehiengoaren berririzanez eskatzen dutenean politikaren esparrua egoerak eskatzen duen mailan egotea.

1. artikulua. Foru lege honen helburua da beharrezkoa den konpentsazio ekonomikoa ezartzea, ziurtatze aldera administrazio publikoetako langileek osorik jasoko dituztela 2012rako aurreikusitako ordainsariak.

2. artikulua. Foru lege honek eragina izanen du administrazio publiko guztietako langileengan, baldin eta 2012rako aurreikusitako soldata jaitsi bazaie administrazio publikoetako aurrekontu-defizitari edo krisi ekonomikoari erantzutearren Gobernuak hartutako erabakien edo murrizketen ondorioz.

3. artikulua. Neurri horiek direla-eta 2012ko ekitaldi honetarako aurreikusitako ordainsarietan izan duten jaitsiera adinakoa izanen da jasoko duten zenbatekoa.

Langilea zer administrazioren mende dagoen, horrexek ordainduko du zenbateko hori, baldin eta administrazio horrek alde aurretik erabaki badu murrizketa egitea.

Aurtengo aurrekontu-ekitaldiaren kargura egiten da ordainketa; hain zuzen ere, ordainketa

bakar batean eta abenduan zehar, eta abendua bukatu aitzin betiere.

Azken xedapen bakarra

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42 eta 45. artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42 eta 45. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42 eta 45. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru Lege proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. eta 45. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENEA

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak udalez gaindiko proiektu edo planen deklarazioa arautzen du 42. eta 45. artikuluetan, beren izaera edo interes berezia dela-eta ohiko prozeduraz bestelako bat behar duten jarduketak antolatzeko eta ezartzeko. Legearen filosofia eta testuinguru horretan esleitzen zaio Nafarroako Gobernuari, hain zuzen ere, udalez gaindiko plan edo proiektu sektorial bat deklaratzeko ahalmena. Deklarazio horrek aukera ematen dio zuzenean garatzeko udalez gaindiko proiektu sektorialak, aintzat hartu gabe ukitutako toki entitateek izan ditzaketen kontrako iritzirik edo gizarte-eragile edo -entitateen balizko jarrerak.

Areago, udalez gaindiko proiektu sektorialak lizentzia edo bestelako toki-kontrol prebentiborik salbuetsita daude baldin eta Nafarroako Gobernuak interes orokorrekoak direla deklaritzen badu.

Udalez gaindiko eraginaren deklarazioa salbuespen gisa hartu beharra dago, interes orokorra ukazina den kasuetarako eta toki entitateak lankidetzan aritzearen aurka dauden kasuetarako, zeinetan Gobernuak –interes orokor hori aldeztarren, hain zuzen ere– alde bateko jarduketa baliatzea komeni baita.

Halere, 35/2002 Foru Legeko 42. artikulua egiazko aplikazioan ikusten ari gara Nafarroako Gobernuak neurrigabe baliatzen duela udalez gaindiko deklarazioa, arautu nahi zen interes orokorraren salbuespenezko izaerarekin zerikusirik ez duten jarduketak inposatzeko. Aitzitik, deklarazioa

zio hori aldiro erabiltzen da Gobernuaren proiektu politikoak aurrera ateratzeko, ukitutako toki entitateetan demokratikoki eta, are, legez ezarritako gehiengoan aurka eta Nafarroako Parlamentuaren gehiengoak adierazitako jarreraren aurka.

Hori dela-eta, bidezkoa da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Legeko 42. artikulua aldatzea, Gobernuak udalez gaindiko plan bat edo proiektu sektorial bat deklaratzeari dagokionez. Parlamentuak udalez gaindiko deklarazioa berretsi beharra jasoko da; bermeak eta kontrola indartu eginen dira hartara figura horren erabilerran, Gobernuaren erabaki politiko hutsen gaineratik.

Aldaketa honen ondorioz, bidezkoa da, orobat, 45. artikuluko 2. idatz-zatiko c) eta d) letrak berriro idaztea.

1. artikulua. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 42. artikuluari beste idatz-zati bat eranstea, bosgarrena. Hona testua:

“5. Nafarroako Gobernuak deklarazioa egin eta gero, deklarazio hori Parlamentuari igorriko zaio, eztabaidatzeko eta, hala erabakiz gero, berresteko”

2. artikulua. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 45. artikulua aldatzea.

Bat. 2. idatz-zatiaren c) letra aldatzen da. Hemendik aurrera, testu hau izanen du:

“c) Plana edo proiektua udalez gaindiko deklaratu ahalko da 42. artikuluan xedatutakoarekin bat”

Bi. 2. idatz-zatiaren d) letra aldatzen da. Hemendik aurrera, testu hau izanen du:

“d) Nafarroako Parlamentuak plana edo proiektua udalez gaindiko deklaratzeko berretsi ondoren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta gutxienez ere hilabetez beteko ditu jendaurrean jartzearen izapidea eta planak edo proiektuak ukitzen dituen udalei entzuteko izapidea, zeinak aldi-berekoak baitira”.

Xedapen iragankor berria. Foru lege hau Nafarroako Parlamentuan onesten den unean, izapidetzen ari diren edo behin betiko onespena jasotzeko dauden udalez gaindiko plan edo proiektu sektorialeiei ere aplikatuko zaie foru lege honetan xedatutakoa.

Foru Lege proposamena, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako ondorioekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak Foru Lege proposamen bat aurkeztu du aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako ondorioekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen Foru Lege proposamena, 2012rako ondorioekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako ondorioekin, erosahalmenaren galera dela-eta

ZIOEN AZALPENA

Alderdi Popularrak zuzentzen duen Espainiako Gobernuak berriro ere planteatu ditu Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen –eta, oro har, langile guztien– eskubideen eta lan-baldintzen aurkako neurriak.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileek eta enpresa-sektore publikokoek azken urteotan ikusi dute larriki narriatu direla beren ordainsariak eta, azken finean, beren erosahalmena. Arian-arian, beren oinarritzko ordainsariak ez gaurkotzea eta are jaistea ere ekarri duten neurriak eta legegintza-egintzak onetsi dira. Horrek guztiak eragin du azken bost urteotan ehuneko 12ko galera izan duela, batez beste, langile horien erosahalmenak; galera ehuneko 19tik gorakoa izan litezateke baldin eta ez badira hartzen 20/2012

Errege Lege Dekretuaren edukia arintzeko neurriak.

Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretu honen onespenez, oinarri hartzen baititu Konstituzioko 149.1.13 artikulua —ekonomiaren plangintza orokorrerako oinarriak eta koordinazioa— eta 156.1 artikulua —Estatuko eta autonomia erkidegoetako ogasunen arteko koordinazioa—, eraso egiten die berriz ere Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenei; bereziki, horren 2. artikuluan ezarritakoak, zeren 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kentzeak Espainiako Estatuko sektore publikoko langile guzti eraginen baitie.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak eskumen osoa esleitzen dio Nafarroari erkidegoko funtzionario publikoen estatutu-araubideari dagokionez, Estatuko oinarritzko legediak funtzionario publikoei aitortzen ahal dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz —49.1.b artikulua—.

Nafarroak funtzio publikoaren arloan duen eskumen historikoaren muga bakarra dira batasun konstituzionala eta Foruaren Hobekuntzako manu horretan ezarritakoa, halako moduan non, Konstituzio Auzitegiak irailaren 20ko 140/1990 zenbakiko epaian adierazi duen legez, “funtzionario publikoen estatutu-araubideari buruzko oinarritzko estatu-legediaren aurreikuspenek ez dute guztiek izan bere eskumena mugatzeko ondorio hori, «funtsezko eskubide eta betebeharrei» buruzkoek soilik izan baitute, hain zuzen ere, ondorio hori” (4. oinarri juridikoa).

Eskumena osoa izateak eragiten du Nafarroak arlo horiei buruzko ahalmen guztiak edukitzea, eta bere foru izaerak eragiten du ahalmen horien muga ez izatea gainontzeko autonomia erkidegoei aplikatu beharrekoaren berdin-berdina; alegia, muga hori ez du ezartzen oinarritzko estatu-legediak, orokorrean hartuta, baizik eta Estatuko oinarritzko legediak aitortzen dituen funtsezko eskubide eta betebeharrakiko errespetuak.

Estatuak konstituzio-eskumena izan lezake langile publikoen ordainsariei mugak ezartzeko —langile publikoak orokorrean hartuta—; halere, maiatzaren 21eko 63/1986 epaiak ezartzen duenez, gehieneko mugen ezarpenak baztertu egiten du autonomia erkidegoen mendeko funtzionario

bakoitzaren ordainsarien zenbatekoen gehieneko igoerak ezartzea Estatuak bere kabuz, funtzionario horiek banan-banan hartuta. Nabardura horrek islatu besterik ez du egiten estatuaren eta autonomia erkidegoen eskumena bateragarri egin beharra dagoela; izan ere, nahiz eta onartu lehendabizikoaren norainokoa, intentsitatea edo eragina aldatu egin daitekeela, beti mugatu beharko da berezkoa duen esparrura, hau da, konstituzio-manuek aipatzen dituzten ekonomia-jardueraren plangintzara eta koordinaziora, hortik harantzago joan gabe.

Hori dela-eta, foru lege proposamen hau onestea Nafarroak arlo horretan dituen eskumenen araberakoa dela uste dugu. Proposamenak, arautzen duen eduki ekonomikoarekin, xede du arintzea Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen eta lan-kontratudunek 2012an zehar erosahalmenari dagokionez izandako galera, Nafarroako aurrekontu orokorretan ekitaldi horretarako aurreikusitako gastu osoa gainditu gabe.

Aparteko ordainsaria, estatu-xedapenen kariaz, 2012ko ekitaldiaz harantzago ere kentzea planteatzen den neurrian, foru lege honen indarraldia hurrengo ekitaldietara luzatzeko aukera aurreikusten da.

Foru lege proposamen honek artikulua bakarra du, eta horren bidez ezartzen da aldi baterako osagarri pertsonal bat ordaintzea langile funtzionarioei, erosahalmenaren galera dela eta. Xedapen gehigarrietan zehazten da nola aplikatuko zaizkien foru lege honetan jasotako neurriak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako estatutupeko eta lan-kontratuko langileei, bai eta Nafarroako gainontzeko administrazio publikoetako lan-kontratuko langileei ere. Bestalde, foru lege hau Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoen zerbitzuko lan-kontratuko langileei aplikatzeko baldintzak finkatzen dira.

Azkenik, foru lege honek 2012ko uztailearen 1etik aurrera hartuko duela indarra aurreikusten da. Zehazten da, orobat, 2012. urteari dagozkion neurriek egun horretatik aurrera izanen dituztela ondorioak, urtea bukatu arte, deusetan galarazi gabe hurrengo ekitaldietan ere osorik edo partez aplikatzea, Estatuak araudiak aparteko ordainsariak kentzeko luzapenak aurreikusten dituen neurrian.

Artikulu bakarra. Aldi baterako osagarri pertsonal berria, erosahalmenaren galera dela-eta.

1. Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioei osagarri pertsonal bat ordainduko zaie 2012an, erosahalmenaren galera dela-eta,

uztailean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoar izanen duena.

2. Ordainsaria 2012a bukatu aitzin ordainduko da, ordainketa bakarrean, eta funtzionario bakoitzari aurreko idatz-zatian ezarritakoarekin bat dagoen zenbatekoa ordainduko zaio.

3. 2012ko uztailearen 1a baino geroago sartzen diren funtzionarioen kasuan, osagarriaren zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartuko da 2012ko abenduaren 31ra bitarte lan egiten duen denbora, halako moduan non adierazitako lehenbiziko data horretan sartzen denak osagarriaren ehuneko ehun kobratuko baitu, eta gainontzekoei bigarren datara bitarte lan egindako denboraren zati proportzionala ordainduko baitaie.

Lehenengo xedapen gehigarria. Foru lege hau Nafarroako administrazio publikoetako estatutupeko eta lan-kontratuko langileei aplikatzea.

Foru lege honetan jasotako aurreikuspenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko estatutupeko eta lan-kontratuko langileei aplikatuko zaizkie, funtzionarioentzat ezarritako baldintza berberetan, bai eta Nafarroako gainontzeko administrazio publikoetako lan-kontratuko langileei ere.

Lanaldi partzialeko lan-kontratuen edo obrak nahiz zerbitzuak egiteko kontratuen kasuan, kontratuaren iraupenaren denboraren zenbateko proportzionala ordainduko da azken kitatzearen unean, eta foru lege honetako artikulua bakarreko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera eginen da kalkulua.

Bigarren xedapen gehigarria. Foru lege hau Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetako lan-kontratuko langileei aplikatzea.

Foru lege honetan jasotako aurreikuspenak Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetako lan-kontratuko langileei ere aplikatuko zaizkie. Lanaldi partzialeko lan-kontratuen edo obrak nahiz zerbitzuak egiteko kontratuen kasuan, kontratuaren iraupenaren denboraren zenbateko proportzionala ordainduko da azken kitatzearen unean, eta foru lege honetako artikulua bakarreko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera eginen da kalkulua.

Azken xedapena. Indarrean sartzea eta indarraldia.

1. Foru lege honek 2012ko uztailearen 1etik aurrera izanen ditu ondorioak, eta aurten hasiko da ondorioak izaten.

2. Hori guztia gorabehera, estatu mailako xedapenen bidez luzatzen bada, hurrengo ekitaldiei

begira, abenduko aparteko ordainsaria kentzea,
foru lege honen indarraldia ekitaldi horietara ere
luzatuko da.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, kulturaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, kulturaren arloko politika orokorrari buruzkoa.
2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduko 183. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, kultura arloko politika orokorrari buruzko ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari.

2011ko uztailaren 1ean, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak eskatu zuen Kulturako, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak agerraldia egin zezan kasuko batzordean, infor-

mazioa emate aldera UPNk eta PSN-PSOEek itundutako gobernu-programa aplikatzearen ondorioz bere departamentuan garatu beharreko ildo politikoei eta haren egitura organikoan izandako aldaketei buruz.

Agerraldi hori 2011ko irailaren 16an egin zen. Agerraldian, legegintzaldian zehar garatu nahi zituen jarduketa-ildo nagusiak azaldu zituen kontseilariak.

Iragan ekainaren 15ean, Nafarroako Gobernu-ko lehendakariaren alde bakarreko erabaki batek bere kargutik kendu zuen lehen lehendakariordea. Koalizio gobernuko gainontzeko kontseilari sozialistek berehala eman zuten dimisioa.

Hori horrela:

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak kultura arloko politika orokorrari buruzko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, jakin nahi baitugu ea hasiera batean aurkeztutako planak indarrean dirauen eta, kasua bada, zer aldaketa aurreikusten dituen, Gobernuaren osaera berria ikusita.

Iruñean, 2012ko ekainaren 28an

Eleduna: Roberto Jiménez Allik

Jabeldura, Foru Komunitatea pairatzen ari den murrizketa-politikari eta politika horren ondorioei buruzkoa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Foru Komunitatea pairatzen ari den murrizketa-politikari eta politika horren ondorioei buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkurarako:

Iragan uztailaren 11n, Espainiako Gobernuak lehendakariak murrizketa-sorta bat iragarri zuen,

pentsioei, BEZari, funtzionarioen lan-baldintzei, mendekotasunari eta beste hainbat arlori eragiten dietenak. Uztailaren 13an, Ministroen Kontseiluak neurri horiek, gogortuta, onetsi zituen.

Murrizketa horien ondorioz, Espainiako herritarrek eta, ondorioz, nafarrek, eragin larri-larriak pairatuko dituzte.

Badira, orobat, gure autogobernuari larriki eragiten ahal dioten neurriak.

Lehenago, Nafarroako Gobernuak ere, ekainaren 20ko erabaki bidez, 132 milioi euroan murriztu zuen aurrekontua. Hortaz, bizi dugun egoera larria da Nafarroan ere.

Hori dela-eta, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Foru Komunitatea pairatzen ari den murrizketen politikari eta hortik heldu diren ondorioei buruzkoa.

Iruñean, 2012ko uztailaren 17an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Jabeldura, gardentasunari eta herritarren ordezkariak eta gizarteak berak informazioa jasotzeko duten eskubidea errespetatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko jabeldura, gardentasunari eta herritarren ordezkariak eta gizarteak berak infor-

mazioa jasotzeko duten eskubidea errespetatzeari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Legegintzaldiko lehen urtean zehar, gertakari-andana eskandalagarri batek agerian utzi du Nafarroako Gobernuaren borondatea dela informazioa ukatzea herritarren ordezkariari nahiz gizarteari berari, nahiz eta horiek informazioa jasotzeko eskubidea izan. Nafarroako Kutxan dietak kobratu izana herritarrei ezkutatzearen eskandalua; desagertutako entitate horri buruzko galderak erantzuteari behin eta berriro uko egitea; kontu publikoetako zuloa ustez ezkutatzea, azpiegitura eta

proiektuen finantzaketaren arloko opakutasun etengabea...

Bere burua aurreratutzat duen demokrazia batek ezin ditu onartu gisa horretako jarduketak, eta beharrezkoa da horiek berehala zuzentzea eta Nafarroako Gobernuaren –egun, UPNrena– orain arteko zigorgabetasuna eragotziko duten neurriak ezartzea.

Horregatik guztiagatik, parlamentari honek jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, gardentasunari eta herritarren ordezkariak eta gizarteak berak informazioa jasotzeko eskubidea errespetatzeari buruzkoa.

Iruñean, 2012ko uztailaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak neskak eta mutilak bereizten dituzten eskola eta institutuekin dituen itunei buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak neskak eta mutilak bereizten dituzten eskola eta institutuekin dituen itunei buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarren araudiari jarraiki, ondoko jabeldura egiten dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin.

Hezkuntza jendarte honen giltzarri izanik, kontuan izatekoa da interes orokorreko behar duela izan eta lanketa hori eskaini behar zaiola. Hezkuntza ereduak eta eskola moduak auzitan jarri izan

dira behin eta berriz Erkidego honetan ere. Auzi orokorra den heinean, abuztuan jakin dugu Andaluzia eta Kantabriako Autonomia Erkidegoek jarritako auzien epaia zein den.

Neskak eta mutilak bereizten dituzten eskolek itunpean egon behar ote duten zalantzan jarri du Espainiako Auzitegi Gorenak: esan du bidezkoa dela itunik ez egitea haiekin, sexuagatik bereizkeria egiten baitute.

Gorenaren epai honen aurrean, ordea, Nafarroako Gobernuak entzungor egin eta Nafarroan neskak eta mutilak bereizten dituzten eskolen itunak berean jarraituko dutela agindu du.

Nafarroan aintzat hartuta neskak eta mutilak bereizten dituzten eskolak itunpean daudela, uste dugu Gobernu honek jendartearen eskaerari eta epaitegiek bere egin duten hezkuntzaren izaerari etsi behar diotela.

Hau guztia hala izanda, parlamentari honek Nafarroako Gobernuak jabeltzen du hezkuntzako arlo orokorrean neskak eta mutilak bereizten dituzten eskola eta institutuen ituntzeen inguruan.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 23an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako zenbait material didaktiko sar dezan ETAREN terrorismoak Nafarroan izandako ondorenen kontakizuna egiteko proiektuaren barruan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ikastetxeetarako zenbait material didaktiko sar dezan ETAREN terrorismoak Nafarroan izandako ondorenen kontakizuna egiteko proiektuaren barruan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez eskatzen da ikastetxeetan banatzeko material didaktikoa sar dadin ETAK Nafarroan eragin dituen ondorenei buruzko liburu bat prestatzeko Nafarroako Gobernuaren programaren barruan.

Nafarroako Gobernuak 2012ko ekainaren 27an proiektu bat iragarri du, ETAREN terrorismoak azken mende erdian Nafarroan izandako ondorenen kontakizuna egiteko. Nafarroako Gobernuak adierazitakoaren arabera, lan hori dibulgazio-liburu bat izanen da, eta biltzen den materialak bideoak edo dokumentalak hainbat euskarritan egiteko

balioko du. Proiektu honetako taldea 2012ko irailaren 1ean hasiko da lanean, eta liburuaren edukia (testua eta argazkiak) 2014ko udaberrirako egonen da prest.

Nafarroako Parlamentuak Talde Popularraren mozio bat onetsi zuen 2012ko ekainaren 14ko Osoko Bilkuran. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen Terrorismoaren biktimei laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeko V. kapituluko 2. idatz-zatia bete dezan. Hartara, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, urtean behin, hezkuntza programa bat zabalduko du Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jasotzen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan. Onetsitako erabaki proposamenean zehazten da programak terrorismoaren aurkako bizikidetasun baketsu eta demokratikoaren balioak jaso eta islatuko dituela eta gazteak kontzientziatuko dituela ideia demokratikoak aldezteko bitarteko eta modua den aldetik hitzak duen balioari buruz. Mozioak orobat jaso zuen ezen programa Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuei ere eskainiko zaiela.

Horregatik guztiagatik, Talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea nahiz Nafarroako Parlamentuak 2012ko ekainaren 14an onetsitako mozioa (8-12/MOC-00064 espediente zenbakia) betetz, ikastetxeetarako material didaktikoa sar dezan ETAREN terrorismoak Nafarroan izandako ondorenen kontakizuna egiteko proiektuaren barruan.

Iruñean, 2012ko ekainaren 27an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da INASako lanpostuak mantentzeko formulak bila ditzan.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita INASako lanpostuak mantentzeko formulak bila ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranez, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2012ko ekainaren 22an lan saio bat egin zen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean, non agerraldia egin baitzuten Irurtzungo Inasa enpresako Enpresa Batzordeko ordezkariak.

Lan saio hartan, langileen ordezkariak azaldu zuten zer egoeratan dagoen Inasako plantilla, Baikap arrisku-kapitaleko enpresak enplegu-erregulazioko espediente bat aurkeztu ondoren Irurtzungo plantako 168 lanpostuak azkentzeko.

Lanpostu guztiak babesten saiatze aldera alderdi sozialak egin dituen ahalegin eskerga ikusita –ahalegin horren barruan sartzen zen soldata

ehuneko 24 jaistea–, konpainiak planteatu du instalazioak berehala ixtea.

Langileen ordezkariak behin eta berriro argudiatu dute babesgabetasun egoeran daudela, ondoko bi aldagaien ondorioz: enpresaren dinamika immobilista, ez-negoziatzailea eta nagusikeriazkoa, Gobernu zentralaren lan-erreforma berrian oinarritua; zehazki, lan-erreforma horren 41. artikuluan.

Ukaezina da kasuko departamentuaren eta, hedaduraz, Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna, hasitako prozesuaren kudeaketan, tratamenduan eta ebazpenean, eta argi dago zer ahalegin egin behar diren 168 lanpostuak mantentzeko eta sendotzeko.

Baldintza saihestezina da, orobat, lan-agintaritzaren eskudunak alderdiei exijitza ezarritako legebetekizunak bete ditzaten eta zorrozki zaintzea betekizun horien betetzea.

Horregatik guztiagatik, konbentziturik gaudenez Inasako plantillarentzat –Irurtzungo plantako langile guztientzat– berebiziko garrantzia duela Administrazioak esku-hartze aktiboa izateak auzi honetan, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du modua bila dezan Irurtzungo Inasa enpresako lanpostuak mantentzeko eta finantzatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zorrozki zain dezan Baikap arrisku-kapitaleko sozietatearen jardunetik heldu diren legebetekizunak nahiz beste edozein betekizun begiratu eta betetzen direla Irurtzungo plantaren balizko ixteari dagokionez.

Legea zorrozki begiratu eta betetze hori orobat beteko da fabrikaren balizko desegiteari eta enpresaren ondare-kudeaketari dagokienez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 28an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertan behera utz ditzan ezarri izan dituen irizpideak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoan eta haren menpeko erakunde autonomoetan sortzen diren lanpostu hutsak betetzeari dagokionez.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bertan behera utz ditzan ezarri izan dituen irizpideak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoan eta haren menpeko erakunde autonomoetan sortzen diren lanpostu hutsak betetzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2012rako defizit-helburua betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako konpromisoak berekin ekarri behar du diru-sarrera publikoak sendotzeko nahiz lanpostuak mantentzeko neurriak hartzea. Lortu nahi denaren aurkakoa lortzen ari dira Nafarroako Gobernuak abian jarritako neurri batzuk.

Langileen arloko neurri jakin batzuen bidez gastua murriztea, zerbitzu publikoek okerrera egitea ekartzeaz gain –gizarte demokratiko, bidezko

eta berdintasunezko baten zutabe nagusiak dira zerbitzu publikoak–, eragin negatiboa izaten ari da gure erkidegoko langabezia-tasan, eta, ondorioz, kalte egiten ari zaie familiei eta Nafarroako ekonomiaren aktibazioari.

Erretiroek sortutako lanpostu hutsak betetzeko irizpide berrien bidez gastuak murriztu nahi izatea eta bajaran dauden langileak ez ordezkatzeko langabeziak gora egitea eragiten ari da, eta eragin hori, zalantzarik gabe, areagotu egin daiteke hurrengo ekitaldian. Erretiroek sortutako lanpostu hutsen % 10 soilik betetzen baldin bada, pentsatzekoa da langabetuen ehunekoa igotzea, horrek Nafarroako ekonomiarako dakarren zamarekin.

Ezin dugu ahantzi zerbitzu publiko hobeak dituzten gure inguruko herrialdeak direla krisiaren oldarrari hobekien eusten ari zaizkionak.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bertan behera utz ditzan apurka-apurka ezarri dituen irizpideak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko plantillan sortzen diren lanpostu hutsak betetzeari dagokionez.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtero bete ditzan erretiroek sortutako lanpostu huts guztiak.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prozedura bat negoziatzen dezan ordezkari sindikalekin, bajaran edo lizentzia batekin dauden langileak ordezkatzeko, halako moduan non ez den gutxituko herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea.

Iruñean, 2012ko uztailearen 3an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zerbitzu jarraitua ematen segi dezan Oronoz-Mugairiko osasun etxean.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita zerbitzu jarraitua ematen segi dezan Oronoz-Mugairiko osasun etxean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu jarraitua mantentzeko Oronoz-Mugairiko osasun etxean.

Jakin dugunez, Nafarroako Gobernua prestatzen ari den osasun plan berrian aurreikusten da Oronoz-Mugairiko osasun etxea larrialdietarako

itxita egotea arratsaldeko eta gaueko txandan, eta Elizondo-Donzteberen mende egotera pasatzea. Hori horrela, zenbait hausnarketa egin beharra dagoela iruditzen zaigu.

Neurri hori ezartzen baldin bada, arratsaldez eta gauez zerbitzu bakar baten kargura geldituko litzateke larrialdietarako osasun zerbitzua Baztan Ibarrean –hamabost herri eta hogeita hamar auzo inguru dira, eta 375 kilometro koadroko azalera egiten dute–. Gure ustez, gehiegizkoa da hori, eta oztopo handi bat da larrialdiak behar bezala artatzeari begira.

Neguan, tokiko klimatologia bereziki gogorra eta arriskutsua da etengabeko joan-etorrietarako, eta beste horrenbeste esan daiteke orografiari berari buruz.

2008an, Osasun Departamentuak Oronoz-Mugairiko zerbitzu jarraitua kentzeko aukera hori bera aztertu zuen, baina azkenean baztertu egin zuen, erabaki horrek ekarriko litzuzkeen oztopo gehigarriak asko izanen zirelako.

Azaldutako guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du zerbitzu jarraitua ematen jarrai dezan Oronoz-Mugairiko osasun etxean.

Iruñean, 2012ko uztailaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako kultur ondareari buruzko urte anitzeko plan bat aurkez dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako kultur ondareari buruzko urte anitzeko plan bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abenduaren 31 baino lehen Legebiltzarrean aurkez dezan Nafarroako Kultur Ondareari buruzko urte anitzeko plan berri bat, 2011ra arte indarrean egon denaren orde.

Nafarroako Foru Komunitateak kultur ondare berezia eratu du bere historian zehar. Vianako Printzea Erakundea ondare hori aldeztu, zaindu eta hobetzeaz arduratu da, 1940an sortu zenetik. Erakundearen jardunari buruzko arau guztien artean bi lege garrantzitsu nabarmendu beharra dago: Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea eta Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legea.

Kultur ondarearen esparruko jarduketari buruz egiten den irakurketa berritu beharra dago; izan ere, mende berriak erronka eta behar berriak ekarri ditu, eta ateak ireki behar zaizkie azken hamarkadetan agertu eta kontrastatutako aukera berriei. Ondorioz, ondarea leheneratzeko politika

berriak sustapen eta hezkuntza arloko lanari lotuta egon behar du, herritar guztiek erabili eta gozatu ahal izan dezaten Nafarroako ondarea. Bestalde, krisiaren inpaktuak, zeina modu esplizituan islatzen baita ondareari esleitutako funtsen murrizketa nabarmenean, exijitzen du esku-hartzeak lehenesteko irizpideak zorroztea, talde-lana bultzatzea, jarduteko printzipioak zehaztea, zabalkunde-programak sustatzea eta, ahal den neurrian, hasierako jarduketa-katalogo bat ezartzea, legean aurreikusitako figura guztiak barne hartuko dituen.

Horiek horrela:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abenduaren 31 baino lehen Legebiltzarrean aurkez dezan Nafarroako Kultur Ondareari buruzko urte anitzeko plan berri bat, 2011ra arte indarrean egon denaren orde.

2.- Plan horrek ondoko atalak edukiko ditu gutxienez ere:

- Jarduketa-esparrua
- Esku hartzeko lehentasunak ezartzeko irizpideak
- Lan egiteko formula arrunta
- Jarduteko printzipio nagusiak
- Proiektuak prestatu eta gauzatzea
- Zabalkundea eta bisita-programa
- Aurrekontua esleitzeko irizpideak
- Indarraldia
- Hasiera batez aurreikusitako jarduketak:
 - monumentuetan
 - multzo historikoetan
 - Industria-arkitekturako multzoetan
 - toki historikoetan
 - eremu arkeologikoetan
 - kultur paisaietan
 - lorategi historikoetan
 - ondasun higigarrietan
 - katalogo eta inbentarioetan

Iruñean, 2012ko uztailearen 16an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan beren bezeroei partaidetza lehenetsiak eskaintzen dizkieten entitate finantzarioei dagokienez.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan beren bezeroei partaidetza lehenetsiak eskaintzen dizkieten entitate finantzarioei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, partaidetza lehenetsien kasuek ukitutako herritarrei laguntzeari eta babesteari buruzko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Azken asteotan, bere garaian hainbat banketxetan partaidetza lehenetsiak erosi zituzten herritarrek egindako salaketa jaso dute hedabideek. Pertsona horiek engainatuta sentitzen dira, informazio egokia jaso gabe erosi dutelako arrisku handiko finantza-produktu bat, partaidetza lehenetsiek ez baitute bermatzen inbertitutako kapitala.

Auziari buruzko behin betiko daturik ez badago ere, zenbatespen batzuen arabera milioi bat familia-akoa da Espainian kaltetutakoen kopurua, eta 30.000 milioi euro inguruko aurrezpenak bideratu dira partaidetza lehenetsietara. Nafarroan, kaltetutako pertsonen kopurua 10.000 ingurukoa izan daiteke.

Partaidetza lehenetsiak definitzean, Espainiako Bankuak berak dio inbertsiogileari eskubide politikorik ematen ez dion finantza-tresna bat direla, sozietate batek jaulkiak, ordainsaria emateko bal-

dintza etekinak lortzea dela eta horien iraupena betirako dela, nahiz eta jaulkitzaileak beretzat gordetzen duen partaidetza horiek bosgarren urtetik aitzina amortizatzeko eskubidea, Espainiako Bankuaren alde aurreko baimenarekin. Eta horri gehitu behar zaio lehenetsien titularrak izanen direla kobratuko duten azken inbertsiogileak –akziodunen aurretik soilik–, baldin eta entitateak porrot egiten badu.

Finantza-produktu hori inbertsiogile instituzionalen edo espezializatuen artean merkaturatu ohi da. Halere, azken urteotan, zenbait kutxak eta banketxek herritar mota ororengana hedatu dute horien salmenta, eta herritar horiek, kasu askotan, ez zeukaten finantza-kultura nahikoa produktu horien konplexutasunaz eta arriskuaz jabetzeko. Kasu askotan, urte askoko lanari esker aurreztutako kapitalak metatu dituzten pertsonak diru mordoa galdu dute ustekabean, ustez arriskurik gabekoak ziren produktuetan inbertituta zeukatena epe finkora.

Ikusita egoera zein den, Nafarroan kaltetuak daudela eta beharrezkoa dela egoera hau berriz ez gertatzea, egokia da Parlamentuak adierazpen argi eta sendo bat egitea, finantza-entitateek zenbait egoeratan beren bezeroekin abusuzko praktikak egin ahal izatearen aurkakoa.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Nafarroan dauden finantza-entitateekin, entitate horiek akordio bat lortze aldera partaidetza lehenetsiak dituzten bezeroekin, halako moduan non hasiera batean inbertitutako kapitala berreskuratu ahal izanen baitute kaltetutako herritarrek.

2.- Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eta Nafarroako Fiskaltzari helaraz diezaien ikertu egin beharra dagoela Foru Komunitateko herritarrekin partaidetza lehenetsien kasuan egindako ustezko abusuak.

3.- Kaltetuei laguntza eskaini diezaien Kontsumo Zerbitzuaren bitartez, kaltetuek doan jaso ahal dezaten informazioa eta laguntza espezializatua.

4.- Foru Komunitatean dauden finantza-entitateekin hemendik aitzina sinatzen dituen hitzarmen, akordio edo gisakoetan jaso dadin nahitaez

ezarri behar direla klausulak, ziurtatuko dutenak akordio horietatik heldu diren produktuak eta zerbitzuak erosten dituzten herritarrek informazio zuzen eta zehatz guztia jasoko dutela, ahoz eta idatziz, halako moduan non ulertu ahalko baitute zein den jasotako produktuen edo zerbitzuen egiazko izaera,

ra, batez ere finantza-kulturarik gabeko pertsonen kasuan, eta edozein dokumentu sinatu aurretik betiere.

Iruñean, 2012ko uztailaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan aplikatzen 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua, sektore publikoko langileen abenduko aparteko ordainsaria kentzen duena.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dezan aplikatzen 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua, sektore publikoko langileen abenduko aparteko ordainsaria kentzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidaririk gabeko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta horrekin lortutakoetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2. artikulua, sektore publikoko langileei kendu egin die 2012ko abenduko aparteko soldata –edo horren baliokidea den zenbateko proportzionala–. Arau horretan ezartzen denez, Gobernuak oinarritzko izaera eman dio neurri hori, Konstituzioko 149.1.13.a artikulua bidez Estatuari esleitzen zaion eskume-

na (ekonomia-jarduera oro har planifikatzeko oinarriak eta koordinazioa) eta 156.1 artikulua (Estatuaren Ogasunarekiko koordinazioaren printzipioa eta espainiar guztien arteko elkartasunaren printzipioa) tarteko.

Neurri horrek, zama publikoen banaketa ekitatezkoari eta ahalmen ekonomikoari buruzko irizpide ororen kontra, bidegabeki jartzen du langile publikoen gainean egungo krisi ekonomikoaren ondorioen zama; eta, horretaz gain, ez zaio egokitzen Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko eskumen-banaketa; hortaz, ez da Foru Komunitatean ezein kasutan aplikatu behar.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren arabera, hitzarmen ekonomikoaren sistema tradizionalaren bidez arautzen da, bere foru araubideari esker, Nafarroaren tributua nahiz finantza-jarduera.

Bestalde, bere foru araubidearen arabera, Nafarroak eskumen osoa du Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubideari dagokionez, Estatuko oinarritzko legediak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuta.

Estatuaren eskumena da ekonomia-jarduera oro har planifikatzeko oinarriak eta koordinazioa ezartzea; uler liteke, beraz, eskumen horrek barne hartzen duela arau eta irizpide orokorrak ezartzea –esaterako, politika ekonomikoaren helburuak, defizit publikoa murrizteko eta aurrekontu-oreka lortzeko–, edo sektore publikoko soldata-masaren igoerari aurrekontu-mugak ezartzea, baina ezin ditu inolaz ere barne hartu auzi hain partikular eta zehatzak, nola den enplegatu publikoen ordainsari-araubide berriazkoa. Arau hori Foru Komunitate-

tean aplikatu nahi izateak bere eskumenetan eskua sartzea esan nahi du.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aplikatu dezan abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 39.3 artikuluan ezarritakoa; alegia, bere funtzionarioei 2012ko ekitaldi honetan ordain diezazkien manu horretan ezartzen diren urteko hamalau ordainsariak, abenduko aparteko ordainsaria barne, bai eta horrekin bat datozen xedapenak ere, lan-araubideko bere langileei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du defenda ditzan Foru Komunitatearen eskumenak funtzio publikoaren araubideari eta ekonomia-araubideari dagokienez, eta hartara aplikatu ditzan foru legediko xedapenak, bazter utzita Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2. artikuluan ezarritakoa.

3. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Mahaia eta Eledunen Batzarra premiatzen ditu legebiltzar honetako langileen abenduko aparteko ordainsaria mantentzeko.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 2an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzea eta, horrenbestez, pribatizatzea.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzea eta, horrenbestez, pribatizatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Ospitaleetako sukaldeak bat egiteko eta pribatizatzeko proiektuak zalantza ugari eta aurkakotasun sozial handia eragiten jarraitzen du. Alde batetik, argi dago horrek lanpostuak galtzea ekarriko lukeela; arazoa are larriagoa da, kontuan hartzen badugu sektore horretan bereziki emakumeak aritzen direla eta bereziki prekarioa dela eta langileen % 70 behin-behinekoak direla.

Eta, beste alde batetik, Nafarroako gizarteak ez du ulertzen zerbitzu publiko bat irabazi asmorik gabekoa, kalitate maila altukoa eta erabiltzaileen gogobetetasuna eragiten duena zerbitzu pribatizatu bat bihurtzeko erabakia; izan ere, enpresa pribatu baten azken helburua beti izanen baita etekinak lortzea.

Nafarroako Gobernuak darabilen argudio nagusia da pribatizazio horrek diru publikoarentzat izanen lukeen ustezko aurrezpena (kalkulu hori murriztuz joan da azken hilabeteotan). Comptos Ganberak bere txostenean adierazitako ondorioen arabera, ordea, ezin da ziurtasunez ondorioztatu zein izanen litzatekeen zerbitzua pribatizatzeak ekarriko lukeen egiazko aurrezpenaren zenbatekoa, ez baitira balioetsi hotz-katearen alternatiba guztiak.

Nafarroako Gobernuak uste du aurrezpena 2,76 milioi eurokoa izanen litzatekeela une honetan. Baina ezin da ondorioztatu aurrezpenaren zer zati dagokion sukaldeak bat egiteari eta hotz-sistema ezartzeari (Comptos Ganberak berak azpimarratzen du bi horiei zor zaiela batik bat aurrezpena) eta zein, berriz, pribatizazioari. Azken hilabeteotan, oposiziotik zenbait ekimen aurkeztu ditugu Nafarroako Gobernuak alternatiba guztiak (kudeaketa publikoarena barne) balioets ditzan, baina UPNk, PPK eta PSNk ez zituzten onartu.

Arlo ekonomikoari dagokionez, azken aldian ezagutu ditugun datuen arabera, Nafarroaren zorra bikoiztu egin da 2009tik 2011ra bitarte, 3.800 eurokoa izateraino biztanle bakoitzeko. Nafarroaren defizitaren zuloa haziz doa, itxura batean, etengabe, eta larriena da ez dakigula benetan zein den kontuen egoera egiaz zein den. Egungo egoeran, Nafarroako Gobernuak eutsi egiten die zenbait proiektuari –esaterako, ospitaleetako sukaldeen pribatizazioari–, eta horrek zorra handitzea ekarriko du epe ertainean; izan ere, urtez urte ordaindu beharreko kanon baten bidez amortizatuko da enpresa esleipen-hartzaileak eginen omen duen inbertsioa.

Marta Vera kontseilariak emandako azalpenen arabera, Departamentuak ez dauka egin beharreko obraren gastuari buruzko aurrekonturik eta kal-

kulu zehatzik; hartara, sarritan gertatzen den legez, hasiera batean ezarritako aurrekontua desbideratu egin liteke, eta Nafarroako Gobernuak ordaindu beharko luke aldea.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun taldeok konbentziturata gaude ezin dela inolaz ere justifikatu berehala eginen bide den pribatizazioaren urgentzia; hortaz, ondoko erabaki proposamenak aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzea eta, horrenbestez, pribatizatzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter ditzan, Comptos Ganberak gomendatzen duenari jarraikiz, hotz-kateko sistemarekin sukalde-zerbitzua emateko alternatiba guztiak; bereziki, zerbitzuaren kudeaketa publikoari eusteko aukera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du moratoria bat ezar dezan –gutxienez ere, bi urtekoa– Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzeko prozesuan.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 2an

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta, Bakartxo Ruiz Jaso eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da 2012ko abuztuaren 15etik harantzago luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-prestakuntzako programa (prepara) eta behar den garaian ordain ditzan erabakita dauden laguntzak.

Otsailaren 11ko 1/2011 Errege Lege-dekretuak PREPARA izeneko programa onetsi zuen langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa. Aurreikusitako laguntza Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) ehuneko 75ekoa da –399,38 euro–, ezin luzatuzko sei hilabeterako. Programa 2011ko abuztuaren 15ean bukatzea aurreikusten zen. Geroago, sei hilabeteko epeetan luzatu zen behin eta berriro (abuztuaren 26ko 10/2011 Errege Lege-dekretua eta abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua); hartara, programa 2012ko abuztuaren 15ean bukatzea aurreikusten da.

Egoera ekonomikoa larria da, eta etorkizuna negatiboa da hazkunde ekonomikoari nahiz enpleguari dagokionez; horri gehitu behar zaio programa hori baliatzeko egoeran egon litezkeen pertsonen egoera ekonomikoa eta soziala muturrekoa dela. Hortaz, segurtamen bihurtzen da programa kentzeak arazo sozial larri bat sortuko duelako intuizioa.

Areago (eta nekez ikusi ahalko da hor demagogia-ariketa bat), nabaria da krisi ekonomikoari aurre egite aldera hartutako neurriek sistematikoki izan dutela joera antisozial bat eta gizarte-maila behartsuenek pairatu dituztela; bitartean, finantza-sistemaren galerak sozializatzeko politikak abiarazi dira, nekez ulertuko dituztenak txirotasunean eta gizarte-bazterkerian murgilduta daudenen eta gero eta elkartasun-tresna gutxiago dituztenek.

Horri gehitu behar zaizkio erabakita dauden laguntzak ordaintzeko atzerapenak. Maiatzekoa da orain arte ordaindu den azken hilekoa, eta ukitutako pertsonak ez dute informaziorik, edo ematen zaien informazioa nahasia eta kontraesankorra da. Argi dago laguntza hori eskatzen duten pertsonak –nekez esan daiteke laguntza hori eskuzabala denik– egoera zeharo delikatuana dardela, eta edozein atzerapenek larriagotu egiten du egoera. Administrazioaren diruzaintza- edo likidez- arazoak zein ere diren, administrazioak arreta berezia jarri beharko luke, hain zuzen ere, gizarteragin handieneko ordainketak behar den garaian kudeatzeari dagokionez. Hori dela-eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Manten dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa, oraingo hau 2012ko abuztuaren 15ean bukatzen denetik aitzina.

2. Berehala eguneratu dadin eta puntualtasuna manten dezan programaren onuradunei ordainketak egitean.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 9an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren bitartekoak ezar ditzan, aurreikusitako egunean ordain daitezen Prepara programako langabetuei bideratutako prestazioak.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren bitartekoak ezar ditzan, aurreikusitako egunean ordain daitezen Prepara programako langabetuei bideratutako prestazioak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan ekainaren 25etik aitzina, Prepara programako langabetuek ez dituzte jaso, Nafarroan, estatuaren laguntza publiko horren azken epeari dagozkion zenbatekoak.

4.2000 nafar baino gehiago daude prestazio mota horren mende; bada, lana bilatzen laguntzeko xedez enplegu-zerbitzu publikoetan prestakuntzako edo laneratzeko ibilbide pertsonal batean parte hartzen ari diren horiek ezin dira sine die egon prestazioak jaso gabe.

Zenbateko horiek, nahiz eta agerikoa izan jasotzaileen oinarrizko beharrezkoen nahikoa ez direla, ezinbestekoak eta oinarri-oinarrizkoak dira jasotzaileen eguneroko betebeharrei aurre egiteko.

Estatuko enplegu-zerbitzu publikoak ezin du justifikatu 399 euroko laguntza horren atzerapena akats informatiko bat balitz bezala, are gutxiago zor diren ordainketak egiteko datarik ez dagoela adierazi zaienean interesdunei, haiek egindako errekerimenduen aurrean.

Ezin da errepikatu ez-ordaintzeen sistematika hau, laguntza horiek berebiziko garrantzia dutelako jasotzaileentzat.

Bestalde, aipatu plana ez baldin bada aurtengo abuztutik aurrera luzatzen, eta erabakiaren arrazoi baldin bada planari atxikitako langabetuen laneratze-maila txikia dela, irizpide ekonomizistari ari zaio ematen lehentasuna, herritarren parte baten oinarrizko beharrezkoen babestearen gainetik.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak ezar ditzan, inolako atzerapenik gabe ordain daitezkeen –aurrez ikusitako egunean, hain zuzen ere– Prepara programako langabetuei bideratutako prestazioak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du sine die luza dezan Prepara plana, laneratzeko ibilbide pertsonal batean parte hartzen duten langabetuek bermaturik izan dezaten bizitzeko gutxieneko estaldura bat.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsitako mozioan adierazitakoa, osasun sistema publikoan haurdunaldia borondatez eteteko aukera eskaintze-ari buruz.

NAFARROA BAI ETA BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsitako mozioan adierazitakoa, osasun sistema publikoan haurdunaldia borondatez eteteko aukera eskaintze-ari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai eta Bildu Nafarroa parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2012ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen osasun sistema publikoan eskaini dezan 2013tik aitzina haurdunaldia borondatez eteteko aukera, eta, bitartean, gobernuarekin hitzarmena duen klinika pribatuarekiko ordainketa sistema berrazter dezan, ez dezaitez zentroaren erabiltzaileek dirua alde aurretik ordaindu behar izan.

Zuzenketa baten bidez, hirugarren puntu bat ere gehitu eta onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen ziurta dezan haurdunaldia borondatez eteteko eskubidea, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoak jasotako kasuetan dauden emakumeentzat.

Mozio hori onestean, erabat argi gelditu zen zein den Parlamentu honen gehiengoaren jarrera, emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideen defentsan. Jarrera hori bera da, gure parlamentu-taldeen iritziz, berriz ere adierazi behar dena Alderdi Popularrak abortuaren legean egin nahi duen erreformari dagokionez, zeina, antza denez, urrian aurkeztuko baitu.

Lege proiektua aurkeztu aurretik ere, hilabeteak daramatzagu aipatu legea lehenbailehen erreformatu beharri buruzko adierazpen publikoak entzuten Gallardón ministroaren ahotan; haurdunaldia borondatez eten ahal izateko irizpideak zeharo aldatu behar omen dira. Lehenik eta behin, PPK baldintzen sistema ezarri nahi du berriz ere, gaur egungo epeen sistemaren ordez. Fetuaren malformazioa gertatzen deneko kasua kentzeko aukera ere aipatu du jendaurrean, eta horrek berekin ekarriko luke lehendabiziko legea bera –1984koa– gogortzea.

Parlamentu-taldeon iritziz, Alderdi Popularra aztertzen ari den irizpideek atzerapen sozial onartezina dakarte, eta larriki urratzen dituzte emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak, sektore ultrakatolikoekiko eta bizi-eskubidearen aldeko mugimenduekiko elkar aditzea bilatuz soil-soilik.

Hori dela-eta, gure parlamentu-taldeen ondoko erabaki proposamena aurkeztu dute:

1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du 8/12/MOC-00027 mozioan adierazitakoa. Mozioa Parlamentuaren 2012ko maiatzaren 10eko Osoko Bilkurak onetsi eta oso-osorik –hiru puntuak– argitaratu zen maiatzaren 17ko Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean.

2. Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen ditu Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Legearen erreforma egite aldera Alderdi Popularrak baliatu nahi dituen irizpideak, emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak larriki urratzen dituen atzerapen sozial onartezina dakartelako.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Parlamentu honen gehiengoaren eta Nafarroako herritarren gehien-

goaren borondatearen arabera jarrera eta jokabidea har ditzan Hartara, Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu emakume nafarren eskubideak defendatu eta Alderdi Popularrak egin nahi duen erreforma Nafarroan aplikatzearen aurka azal dadin.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 17an

Foru parlamentariak: Asun Fernández de Garayalde eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen ditu, Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jasotako “doitze-neurri” deituak.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen baititu, Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jasotako “doitze-neurri” deituak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkezten du, Erregelamenduan ezarritako presako prozeduraren bidez, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Estatuko Aldizkari Ofizialak 2012ko uztailaren 14an argitaratu zuen Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua.

Gobernuko lehendakari Mariano Rajoyk uztailaren 11n iragarritako neurri gogor eta bidegabeak jasotzen ditu arau horrek, zeina kolpe latza baita herritarren bizi-kalitatearentzat, bai eta zaillasun gehigarri bat ere ekonomia dinamizatzeko eta enplegua sortzeko.

Neurri horiek oso eragin negatiboa izanen dute, beste behin ere, gure gizarteko sektorerik ahulenen egoeran, gizarte-eskubideak murrizten baitituzte; esaterako, langabezia-sorospena eta mendekotasunerako laguntzak. Neurri horien erakusgarri dira langileen eskubideen eta lan-baldintzen atzerakada –administrazio publikoetakoak nahiz beste edozein arlotakoak izan– eta zergen igoera bereizkuntzagabea. Neurri horiek, bidena-bar esanda, adostasunik eta eztabaidarik gabe onetsi dira –dekretu bidez eta Diputatuen Kongresuko indar politiko guztien aurkako botoarekin, PP eta UPN kenduta–, eta zenbait kasutan Nafarroaren foru autogobernuaren eskumenen aurkako eraso bat eta mespretxua adierazten dute.

Alderdi Popularraren gobernuak, UPNren babesarekin eta oniritziarekin, gastua eta gizarte-eskubideak murrizteko eta mugatzeko neurriak aplikatzen ditu soilik, eta ahantzi egiten du jardueraren ekonomikoa suspertzeko eta lanpostu berriak sortzeko neurri kontra ziklikoak bultzatu eta ezarri beharra dagoela.

Horregatik guztiagatik, parlamentu-talde honek ondoko mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko:

1. Nafarroako Gobernuak erabat arbuiazen ditu Gobernuko lehendakari Mariano Rajoyk iragarritako "doitze-neurriak", Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jasotakoak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa azaltzen du, behar diren neurri juridiko, politiko eta sozial guztiak abian jartzeko, eragozte aldera neurri horiek Nafarroan aplikatzea. Eta defenditze aldera, foru autogobernutik, neurri eta murrizketa sozial horiek ez aplikatzea, eta ekonomia susperitzeko eta lanpostu berrien sorrera sustatzeko beste neurri kontra zikliko batzuk ezartzea.

3. Nafarroako Gobernuko langileei dagokienez –lan-kontratudunak nahiz funtzionarioak izan–, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere esparruan 2012an aplika dezan "urte amaierako ordainsari berezi" baten ordainketa, abenduan, uztailleko ordainsariaren zenbateko berekoa, zertarako eta

konpentsatzeko langile horien dedikazioa, zerbitzu publikoen bidez Foru Komunitatearen gizarte ongizatearen mailetan jardutekoa, eta erkidegoko ekonomiaren dinamizazioari laguntzeko.

4. Nafarroako Parlamentuaren iritziz, egungo politika ekonomikoa eta uztailaren 13ko Errege Lege-dekretuko neurriak oso-oso larriak dira sozialki, bai dakarten gizarte-bidegabekeriagatik, bai eragin dezaketen atzeraldi ekonomikoagatik, bai jarduera ekonomikoaren pizgarri gisa eta enplegusorrorerari dagokionez lagungarri ez izateagatik, bai eta gure autogobernuaren eskumenen aurkako eraso bat izateagatik ere. Hortaz, gizarteari dei egiten dio neurri horien aurkako mobilizazioetan parte har dezan.

Hori jakinarazten da behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, abuztuaren 20an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernuak eta haren Industria, Energia eta Turismo Ministerioak premiatzen dira ez dezaten luza Garoñako zentral nuklearraren bizitza.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK ETA BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak eta Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Estatuko Gobernuak eta haren Industria, Energia eta Turismo Ministerioak premiatzen baitira ez dezaten luza Garoñako zentral nuklearraren bizitza.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 196. artikuluen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Garoñako zentral nuklearra Espainiako Estatuko zaharrena da 2006az geroztik. 1971ko martxoaren 2an jarri zen abian, eta berrogei urteko bizitza baliagarria izateko diseinatu zen. Epea, hortaz, lazko martxoan bukatu zen.

Bere jardueran zehar behin eta berriz izandako akatsek erakusten dute zentralak segurtasun-arazo handiak dituela, eta horri gehitu behar zaio pitzadura-arazoak dituela, korrosioaren eraginez.

Zentralaren funtzionamendua luzatzeak arrisku onartezina dakar ingurumenari, segurtasunari eta

osasan publikoari begira, eta arriskuan jartzen da, istripu bat gertatuz gero, haren eragin-eremuan bizi diren milioika pertsonaren bizitza. Arrisku horretaz ohartuta, azken urteotan Euskal Herriko, Arabako eta Gasteizko gizarteak behin eta berriz eskatu du, modu masiboan, zentrala berehala ixtea.

Erakundeek ere –gobernu autonomikoa, Arabako Aldundia eta Gasteizko Udala– sarritan azaldu dute zein den beren jarrera azken hamar urteotan, Estatuko Gobernuari zentrala itxi dezan eskatu baitiote.

Frogatuta dago ez dagoela justifikatuta Garoñako zentral nuklearra ustiatzeko lizentziaren luzapena, zentralaren energia-ekarpena luzaz betetzen baita energia berriztagarriko sistemen bitartez.

Hala eta guztiz ere, Espainiako Estatuko gobernuak azken urteotan tematu dira zentralaren bizitza luzatzen, arriskuan jarrita ingurumena nahiz milioika herritarren osasuna. Erabaki horren atzean soilik egon daiteke Espainiako Estatuko Gobernuak bat egitea zentralaren jabe diren konpainia elektrikoen irabazizko interesekin.

Urgentea eta premiazkoa da ekonomia ekologizatzeari. Gure lurraldea iraungarria izanen bada, ezin dugu muturreko arrisku egoeretan jarri –hori besterik ez da Garoñaren jardura luzatzea–, apustu garbi, zalantzagabe eta atzeraezina egin beharra dago energia-iturri berriztagarri eta ekologikoen alde, eta egungo energia-kontsumoaren maila birplanteatu behar dugu.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatuko Gobernu eta haren Industria, Energia eta Turismo Ministerioa premiatzen ditu ez dezaten luza Garoñako zentral nuklearraren bizitza.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du apustu garbia egin dezan energia aurrezteko lehenesteari alde, kontsumoa murriztuz eta iturri ekologiko berriztagarriak erabiliz, energia-sistema publiko batetik abiatuta.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroa osoan errespetatzen dituzten euskaldunen hizkuntza eskubideak.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita Nafarroa osoan errespetatzen dituzten euskaldunen hizkuntza eskubideak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea, Abenduaren 15ekoak azaltzen duen moduan

“Komunitateen ondare kulturalaren barruan, hizkuntzek toki gailena izaten dute. Gizakien arteko komunikabideetako tresna nagusia izateak, giza harremaneko funtsezko oinarri bihurtu ditu, eta kolektibitateari ere identitatea ematen dio, gizarteko erkideei elkarbizitza eta ulermen elementua emanez. Aldi berean, hizkuntzak historia berekiaren sinbolo eta testigantza izaten dira, belaunaldiz belaunaldi erabiltzen dituzten herrien esperientzia kolektiboa bildu, begiratu eta transmititzen baitute.”

Hizkuntzen transmisiorako ordea, hizkuntzaren transmisioa gauzatu eta bermatzeko bideak hiru dira. Bata etxean, familian ikastea; eskolan, eskola arautuaren epealdian ikastea bigarrenik; eta azkenik, helduaroan horretarako finkatuta helduen hizkuntza irakaspen zentroetan.

Nafarroan euskara hizkuntza ofiziala da. Gauzak honela, jakina da hizkuntza ondarea herritarrena dela. Legeak berak onartzen die herritarrei bere 2. artikuluan horretarako eskubidea. Herritarrez mintzo den heinean, ez du ezberdintasunik agintzen herritarren artean bere bigarren artikuluko horretan.

Hari honetatik tiraka, egun egiten den Euskarari Buruzko Legearen irakurketarik makurrrena ardatz hartuta Nafarroako milaka herritarri, milaka familiari hezkuntza ereduaren hautua egiten ez zaie uzten. Izan ere euskaraz ikasteko eskubidea eskola publikoan ez baita Nafarroa osoan eta horrek familiei sekulako eskubide urraketa dakarke.

Hein horretan inkesta soziolinguistiko batean bai eta bestean ere bai, agerian utzi dute herritarrek haien ustez, D eredia eskaini beharko litzatekeela Nafarroa osoan eta are gehiago, prest leudekeela haien seme-alabak horrelako eredu batean matrikulatzeko.

Benetan uste badugu familiei, eurei dagokiela haien eskola hautatzea, neurri berean behar du izan hizkuntza eredia ere, bizi Erriberan, Ameko Ibarrean zein Larraunen, herritarrek izan behar dute aukera eta eskubidea haien hurrek Nafarroako hizkuntzen artean aukera egiteko.

Hezkuntza publikoak beraz, aukera eskaini behar die lurralde osoko herritarrei nahi duten hizkuntzan haien haurrak matrikulatu ahal izateko.

Bistan da borondate kontua dela D ereduaren zabalpena. Egun ezagutzen ditugu kasuak non, eremu ez euskaldunean egonik ere, bertan D ereduaren eskolak ematen diren. Borondate politikoak erakutsiko du beste behin ere nahi izatea beharrezkoagoa dela legearen irakurketarik makurrrena egitea baino.

Gauzak honela nafarren hizkuntza eskubideen errespetua bilatze aldera eta familia guztiek haien gustuko eskola aukeratze aldera ezinbestekoa da jada, geure ustez hala nahi duenak D ereduaren matrikulatzeko aukera izatea, Nafarroako zein eremutan bizi den kontuan izan gabe.

Beraz, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak ondoko erresoluzio proposamena egiten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Nafarroa osoan euskal hiztunen hizkuntza eskubideak errespetatu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Nafarroa osoan D ereduaren eskaintza zabaltzera. D ereduaren izena eman nahi duten familiek horretarako eskubidea eta aukera izan dezaten.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentariak: Mairoga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da zuzen dezan kultur arloari dagokion BEZa igotzeari buruz hartutako erabakia.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita zuzen dezan kultur arloari dagokion BEZa igotzeari buruz hartutako erabakia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko elehunaren ondoko Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen dira Kulturaren esparrurako BEZa ehuneko 21era igotzeko erabakia zuzen dezaten.

Espainiako Gobernuak produktu askoren BEZa ehuneko 21era igotzea erabaki zuen, maiatzeko ministroen kontseiluetako batean onetsitako neurri-sortan. Ekimen hori gogor kritikatu dute alderdiek, sindikatuak, elkarteak eta hainbat espezialistak, ez soilik ekonomiaren arloan izanen dituen eragin suntsizailleengatik, ezpada krisiak, oro har, bereziki ukitutako zenbait sektoreren garapenean izanen duen eraginagatik ere.

Kultura da sektore horietako bat. Kultura-konsumoari buruz SGAEk ezagutzera emandako datuak, 2011ri buruzkoak, bereziki latzak dira. Sektore guztiek jasan dituzte jaitsiera nabarmenak, musikatik hasi eta antzerkiraino, zinema eta liburua barne. Eta hori guztia, neurriak irailetik aitzina izanen bide dituen ondorioak kontuan hartu gabe.

Neurriak eragiten duen kezkaren erakusgarri dira PPko zenbait politikariren iritziak, zeinak, haien militantzia gorabehera, ezinbestez agertu baitira sentikor igoera horren aurrean. Kulturako estatu-idazkari José María Lasalleren adierazpenek –"neurria nekez uler daiteke"– edo Valladolideko alkate Francisco Javier León de la Rivaren adierazpenek –neurriaren aurka azaldu da– erakusten dute desadostasun-maila handia dela Gobernuko alderdian bertan.

Hori guztia ikusita, eta Espainian nahiz Nafarroan kulturaren sektorearen osasuna zaindu nahi, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Kulturaren sektoreak oro har bizi dituen une zailak ikusita, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du kulturaren arloko BEZa ehuneko 21era igotzeko erabakia zuzen dezan eta aintzat har dezan sektoreak ia aho batez egiten duen eskaria, BEZa nabarmen jaistekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion taxututako politika aldatzea, sektoreari oro har ezarritako ehunekoa nabarmen jaitsita; izan ere, ezagutu diren datuen arabera, kultur jarduerak jaitsi egin dira oro har Nafarroan 2011n, krisiaren ondorioz.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 22an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure autogobernua eta osasunaren arloan dituen eskumenak defenda ditzan eta estaldura unibertsaleko osasun laguntza ziurta dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gure autogobernua eta osasunaren arloan dituen eskumenak defenda ditzan eta estaldura unibertsaleko osasun laguntza ziurta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2010eko azaroaren 8an, Nafarroako Parlamentuak Osasunaren arloko eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Lege horretan argi eta garbi jasotzen da estaldura unibertsaleko osasun laguntza ziurtatu behar zaiela Nafarroako udaletan bizi diren pertsona guztiei, eta II. kapituluko 11. artikuluan espresuki aipatzen da Nafarroako udaletan bizi diren etorkinak ere hartzen dituela, "zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera."

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure autogobernua eta osasun arloan dituen eskumenak defenda ditzan eta estaldura unibertsaleko osasun laguntza ziurta diezaieen gure erkidegoan bizi diren pertsona guztiei, bai Gizarte Segurantzaren kotizatu ez duten hogeita sei urtetik gorako pertsonen, bai etorkin guztien, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 23an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da errezeta elektronikoaren sisteman programa bat ezar dezan, ekidite aldera erabiltzaileek dirua aurreratzea.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita errezeta elektronikoaren sisteman programa bat ezar dezan, ekidite aldera erabiltzaileek dirua aurreratzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Farmazia-gastuaren koordainketako eredu berria ezarri izanak ekarri du gure herritarrek dirua aurreratu behar izatea beren medikamentuak erosteko; horrek, kasu askotan, kostu handia dakarkie gaixo kronikoei (diabetikoak eta abar).

Zenbait autonomia erkidegok –esate baterako, Andaluzia edo Galizia– sistema bat ezarri dute, halako moduan non, errezeta elektronikoa baliatuta, inork ere ez baitu ordaindu behar Errege Dekretuan ezartzen dena baino diru gehiago (8, 18 edo 60 euro hilean).

Hortaz, familiek dirua aurreratu behar izatea ekiditeko eta ordainketa-aurrerakinak itzultzeko prozesurako alferrekoak diren administrazio kostuak ekiditeko modu bakarra da errezeta elektronikoa ezartzea erkidego osoan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du errezeta elektronikoko sisteman programa bat ezar dezan, ekidite aldera erabiltzaileek dirua aurreratzea, eta errezeta elektronikoa ezar dezan erkidego osoan, 6 hilabeteko gehieneko epean.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 23an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio bat abiaraz dezan gizarte eragileekin Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean, Enplegu Publikoaren Eskaintza bat adosteko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK ETA BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak eta Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita negoziazio bat abiaraz dezan gizarte eragileekin Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean, Enplegu Publikoaren Eskaintza bat adosteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Higiezinen burbuila lehertu eta, ondorioz, krisia etorri zenez geroztik, finantza-botereek zenbait doitze-neurri ezarri dituzte defizitaren helburua betetzearen aitzakian; eredu sozioekonomiko bidegabe bat inposatu nahi zaio gizarte osoari. Krisi honetara ekarri gaituzten eragileek berek krisiaren irtenbidea inposatu nahi dute, krisia eragin duten arrazoiengan are gehiago sakonduz.

Neurri ekonomiko horien atzean ezkututzen da produkzio-eredu bat, gizarte-eredu ultra-liberal bat, elite batzuei mesede egiten diena, interes orokorraren kaltetan.

Inposatu nahi zaigun ereduaren azken helburuetako bat da sistema publikoa ahultzea, interes pribatuei mesede egiteko. Onetsitako neurriek, eta PPren eta UPNren gobernuen eskutik helduko direnek, jauzi kualitatibo bat dakarte ongizatearen estatu ahularen desaktibazioan.

Zerbitzu publikoen eraispena zeharo planifikatutako zerbitzu da. Logika neoliberalari erantzuten

dio lanpostu publikoak suntsitzeak eta, ondorioz, zerbitzu horiek kalitatea galtzeak.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileak ordezkatzeari dagokionez Alderdi Popularraren gobernuak –UPNren babesarekin– Madriletik inposatu dituen tasak bideratuta daude gutxi batzuen negoziario bihurtzera herritarren oinarritzko beharrianak.

Neurri horiek, sinetsarazi nahi digutenaren kontra, atzeraldi ekonomikoa areagotu besterik ez dute egiten, eta herritarren bizi-baldintzak okertu.

Nafarroak, bere foru araubidea baliatuta eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren arloan dituen eskumenekin bat, bestelako neurri batzuk har ditzake eta hartu behar ditu, ekonomia dinamizatzeke eta enplegua sortzeko. Sektore publiko indartsua sortzea bilatzen duten neurriak, hain zuzen ere, eta guztion ongizatearen estatua ziurtatuko dutenak.

Ezin dugu ahantzi sistema publiko indartsu baten bidez ongizatearen estatu sendoa duten herriak direla hobeki jasaten ari direnak finantza-sektorearen erasoak eta eraso horien ondorio krudelak.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Parlamentu honek erabat arbuiatzen ditu sektore publikoko “ordezte-tasa” deiturikoak, Mariano Rajoyren Gobernuak gure erkidegoan inposatu nahi dituenak.

2. Parlamentu honek Nafarroako Gobernua premiatzen du taxuzko negoziario bat abiaraz dezan gizarte eragileekin Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean, herritar guztientzako zerbitzu zuzen eta kalitatezkoak ziurtatuko dituen Lan Eskaintza Publiko bat adosteko.

3. Parlamentu honek Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean ordezkaturik dauden alde guztiak premiatzen ditu, Lan Eskaintza Publikoaren deialdi horrek ehuneko 10 ingurura jaitsiaraz dezan langile publikoen behin-behinekotasunaren tasa, hiru urteko epean gehienez ere.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 27an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan bisitaldi turistiko-kulturalen programa bat, interes kulturekotzat deklaraturako eraikin guztiak kontuan hartuko dituen.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aurkez dezan bisitaldi turistiko-kulturalen programa bat, interes kulturekotzat deklaraturako eraikin guztiak kontuan hartuko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarrean abenduaren 31 baino lehen aurkez dezan bisitaldi turistiko-kulturalen programa bat, interes kulturekotzat deklaraturako eraikin guztiak kontuan hartuko dituen.

Zioen azalpena

Nafarroako Foru Komunitateak kultur ondare berezia eratu du bere historian zehar. Vianako Printzea Erakundea ondare hori aldeztu, zaindu eta hobetzeaz arduratu da, 1940an sortu zenetik. Erakundearen jardunari buruzko arau guztien artean bi lege garrantzitsu nabarmendu beharra dago: Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea eta Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legea.

Kultur ondarearen esparruko jarduketei buruz egiten den irakurketa berritu beharra dago; izan ere, mende berriak erronka eta behar berriak ekarri ditu, eta ateak ireki behar zaizkie azken

hamarkadetan agertu eta kontrastaturako aukera berriei. Ondorioz, ondarea leheneratzeko politika berriak sustapen eta hezkuntza arloko lanari lotuta egon behar du, herritar guztiek erabili eta gozatu ahal izan dezaten Nafarroako ondarea.

Horrek asmo handiagoko politika bat eskatzen du, kasuko eraikinaren erabilera bereki eta berriazkoak gorabehera aukera emanen duena egindako inbertsioei etekin handiagoa ateratzeko, publiko berriak erakartzeko egintza artistikoaren erabilera eta gozamenera –besteak beste, ikasleak eta adinekoak–, eta kasuko monumentua eskualdeko jardura kultural eta turistikoaren pizgarri bihurtzeko. Hori guztia, dibulgazioaren arloko jarraibide gaurkotuenei jarraituta eginen litzateke, ildo horretan mugitzen diren beste administrazio batzuetako ereduak erakusten duten moduan.

Halere, ezagutu diren zenbait datuk ez dute hori erakusten. Goitik behera zaharberitutako azken eraikinetako batek –San Pedro de la Rúa eliza– ez du ia berritasunik izan, eta bisitekin egin duten gauza bakarra izan da tenpluan barrena ibili, ohi legez, egin den jarduketaren ondoren ezinezkoa izan baita interes handiko lekuetan sartzzea.

Beste horrenbeste gertatu da Uxueko monumentu-multzoan. Bertako egunkari bateko zuzendariari igorritako gutunean –2012ko abuztuaren 21ean, asteartea, argitaratu zen–, hauxe dio Mikel Burguik: “1970ean, giltzak eskuan, heldu eta berehalakasu egiten genien arretabisitariari. Orain, bisitaria Uxuera heltzen da eta inork ere ez dio kasu egiten (...) Hori hobetu beharra dago. Ahal duenak, egin dezala zerbait”

Azaldutako kasu horiek ez direnez bakarrak, hauxe proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzarrean abenduaren 31 baino lehen aurkez dezan 2013rako bisitaldi turistiko-kulturalen programa bat, ondokoak jasoko dituen:

- Interes kulturekotzat deklaraturako eraikinen zerrenda, Nafarroako Gobernuak kudeatutakoena. Jarduketa plan zehatza, erreferentzia berezia eginez intereseko talde berriei –besteak beste, ikasleak eta adinekoak–.

- Interes kulturekotzat deklaraturako eraikinak, azken hamarkadan inbertsio handiak izan dituztenak eta beste erakunde batzuek kudeatutakoak. Hitzarmenaren oinarritzko alderdiak, aurreikusitako bisita-programa ziurtatzen dutenak.

- Beste eraikin batzuk, interes kulturekotzat deklaratu ez diren arren jendearen estimua eta iritzi ona dutenak eta bisita-programa berariazko bat izatea merezi dutenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren baliabideak jarritzan, aurrekontuak horretarako beta ematen duen neurrian, eraikinen jardun berekia sustatzeko edo aipatu plana garatu ahal izateko hitzarmenak egiteko.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 28an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira erabat errespetatuz ditzaten Parlamentu honek onetsitako legeak eta zehatz-mehatz bete ditzaten osasun arloko Nafarroako foru legeak.

BILDU-NAFARROA, NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen baitira erabat errespetatuz ditzaten Parlamentu honek onetsitako legeak eta zehatz-mehatz bete ditzaten osasun arloko Nafarroako foru legeak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Foruaren Hobekuntzako 5. artikulua ondokoa ezartzen du:

“1. Barne osasunaren eta higienaren arloetan, gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak

dagozkio Nafarroari eta, gainera, Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea.

2. Bere lurraldearen barnean, Nafarroak aitzineko idazkiak aipatzen duen gaiari dagozkion zerbitzu guztiak antolatu eta administratzen ahal ditu eta haiekin ikusteko duten erakunde, entitate eta fundazio guztien tutoretza egiten du.

3. Aitzineko idatz-zatietan erabakitakoa deuseztatzen ukatu gabe, Estatuari dagokio artikulua honetako ahalmenak eskumenak betetzera bideratutako koordinazioa eta goi-ikuskaritza.”

Ikusten denez, Nafarroak eskumena du osasunaren arloko oinarritzko estatu-legedia garatzeko; halatan, eskumen hori baliatuta, 2/2000 Foru Legea, 17/2010 Foru Legea eta 10/1990 Foru Legea onetsi ziren, eta, horiei esker, Foru Komunitatearen barruan osasun-laguntza publikoa emanen zaie Nafarroako edozein herritan bizi diren herritar guztiei, zein ere den horien lege-nahiz administrazio-egoera.

Halaber, 17/2010 Foru Legeko 5.1 artikuluan, aitortzen da “osasun laguntza integral eta jarraiturako eskubidea, laguntza maila desberdinetan, Nafarroako osasun zerbitzuen zorroan ezarritakolari jarraituz. Osasun laguntzarako eskubidea berdintasunez gauzatzen dela ziurtatuko da, betiere pertsonaren nortasuna, duintasuna eta intimitatea guztiz errespetatuz, eta sexu, arraza, erlijio, iritzi, hizkuntza, ideologia edo beste edozein inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialengatik inongo bereizkeriarik egin gabe”.

Nafarroako Gobernuaren erabakia, osasunlaguntza baldintzatzekoa, Nafarroako legeen aurkakoa da, aipatu foru lege horietan xedatutakoa urratzen baitu nabarmen.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu erabat errespetatu ditzaten Parlamentu honek onetsitako legeak eta zehatz-mehatz bete ditzaten osasun arloko Nafarroako foru legeak.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 27an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso
